

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko apirilaren 2a • IV. urtea • 150. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



DANIEL BARANDIARAN / TEOLOGOA
*"Gizakiaren azken arerioa
 islama da. Hamar urte barru,
 ez da Europarik egongo" /8-9*



Goienka2a
 Ondoen diseinatutako
 aldizkaria aitortu
 dute GOIENKARIA



OIHANA ELORZA

Euskal Herriko Itzulirako gertu

Astelehenean Bergaran hasiko da Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia. Bergaran izango ditu hasiera eta helmuga lehenengo etapak eta bigarrena ere Bergaratik aterako da. Egunotan jo eta ke aritu dira Bergaran prestaketa lanetan, eta astelehenean jai hartuko dute lantegi nagusietan eta ikastetxetan. Jon Odriozola (argazkian) izango da lasterketan parte hartuko duen debagoiendar bakarra. Azken egunotan, gainera, albiste izan da Jonen taldea, Comunidad Valenciana-Kelmeko taldeak batek, Jesus Manzanok, egin dituen adierazpenen harira. GOIENKARIAk elkarrizketa egin dio oñatiarrari. Odriozolak dio, besteak beste, Kelmek Tourra ezin korritu izanak hasierako planak hankaz gora utzi dizkiola. Jon Odriozolaren elkarrizketarekin batera, barruan, Itzuliaren gaineko informazio osoa aurkituko duzue, zortzi orriko gehigarrian. /BARRUAN, GEHIGARRIA

ASTEKO GAIA: ARAUDI BERRIA DATOR EUROPATIK

Automobil zaharren biltegiak larri

Debagoiengan auto biltegi bakarra daukagu, Bergaran dagoena. Ibarreko kontzesionarioetako auto zaharrak, partikularrenak eta Elgoibar eta Eibar inguruko beste hainbat auto zahar ere eraman dituzte Bergarako auto biltegiara.

Aspaldian, baina, ez dute auto askorik jaso. Izan ere, Europako Batasunak lege berria onartu zuenetik hona hainbat lan egin behar dituzte biltegian, eta lan horiek egin bitartean ezin dute eman autoaren baja lortzeko behar den ziurtagiririk. /3

10.000 lagun batu nahi dituzte bihar Arantzazun

Erramu domeka bezperan egin ohi duen bezala, aurten ere ibilaldia antolatu du Gipuzkoako Gotzaindegiak bihar. Euskal Herriatik etorritako milaka lagunek hartuko dute parte, Joan Mari Uriarte gotzainarekin batera. 09:30ean abiatuko da ibilaldia Oñatitik. Bakearen eskaera benetan premiazkoa ikusi duen urte-

etan, bakearen aldeko ibilaldia izan da. Biharkoa, bakearen aldekoa izateaz gain, fedearen aldekoa ere bada. *Fedeak bizi gaitu* goiburuean egingo da, hain zuzen ere. Izenburu horrek, Euskal Herriko gotzainen garizumako pastoralari egiten dio kasu, eta testuak, pastoralean landutakoa jasotzen du. /4

GRUPO RK^UZ

<p>RK^UZ ALZARIAN</p> <p>Araba etorbidea 20 Tel./Faxa: 943 79 23 51 ARETXABAETA</p>	<p>ETXE MOBEL MUEBLAS ALZARIAN</p> <p>Araba etorbidea 5 Tel./Faxa: 943 79 41 82 ARRASATE</p>
<p>RK^UZ SUKALDE INTEGRALA</p> <p>Mitarte 3 Tel./Faxa: 943 77 04 55 ARETXABAETA</p> <p>FAGOR</p>	<p>RK^UZ ELEKTROGAILUAK</p> <p>Andramari auzunea 1 Tel./Faxa: 943 79 10 97 ARETXABAETA</p> <p>expert</p>

Eraman Focus bat 12.200 eurogatik eta gura baduzu

EZ ORDAINDU 2005era

art e

Horrez gain, hilete honetan
 FordFocus TDCi 100 ZP 5 ate, 15.400 eurogatik,
 aire grotua, ABS, alboro aire-zakusk, lasterketa feroak eta irati CDa.

Hil amalarrera arte bakarrik

Gozatzeko pentsatuak, irauteko eginak

FordFocus TDCi

MUGARRI AUTOAK
 Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Asteon

eguraldiari gainbegiratu

**ANDONI AIZPURU
 ETA ANA URRUTIA**

Gu bagara 'Asteleheneko Goienkaria'-ren harpidedun. Egin zaitez zu ere!



MANU ARREGI |

IRAKASLEA,
OÑATI

"Interesgarria da, ibarreko notiziak ekartzen dituelako. Astelehenetan euskal prentsak zuen zuloa betetzen du. Gainera, kirol informazioaz gain, kultura informazioa ere badakar. Gustatzen zait".



ARANTXA LEJARRAGA |

IRAKASLEA,
ARETXABALETA

"Nire ustez, haur, gazte, heldu eta familia osoak elkarrekin konpartitu eta irakurri ahal izango duten prentsa idatzia izatera heldu beharko luke. Ibarreko beste informazio iturri bat izatea aberasgarria da".



MILA ELORTZA |

ANGIOZARKO
LIBURUTEGIA, BERGARA

"Liburutegian, izugarriko harrera izan du *Asteleheneko Goienkaria*-k. Nire ustez, kirol larregi dakar, baina konturatu naiz jendeak oso gustura irakurtzen duela, gazteek batez ere. Ondo dago, bai".



GORKA URIARTE |

ILE APAINZAILA,
ARRASATE

"Oso ondo dago *Asteleheneko Goienkaria*. GOIENKARIAK bezala, Debagoieneko notiziak ekartzen ditu, baina orain ez daukagu egubakoitza heldu arte itxaron beharrik. Biak irakurtzen ditugu pozik".



SALVA OLABERRIA |

ABESBATZA,
ANTZUOLA

"Aste batzuetan, nahiko berandu jaso dugu etxean, eta akats horixe antzeman diot. Gainontzean, oso ondo idatzia dago. *Berria* egunkariak astelehenetan duen hutsunea betetzen du. Dena irakurtzen dut".

Astekoak



Elurra... udaberrian

Gorlako txirrindularitza igoera jokatu zen joan zen domekan. 30. aldian zuten gazte mailako txirrindularitza lasterketa herrikoi eta ospetsuenetakoa bihurtu den honek. **Julian Gorospe, Xabier Lazpiur, Alberto Fernandez, Santi Blanco...** Gorlako igoera irabazi duten batzuen izenak dira, gehienak, gero, profesioaletara pasatu direnean, nabarmendu direnak.

Lokatza ziklismo eskolakoei eta **Bergarako Txirrindularitza Elkarte**koekin lan handia egiten dihardute azken urteotan lasterketa antolatzeke; aurten ere hala izan da. Aurten, baina, ohikoa ez den arazo bati egin behar izan diote aurre: elurrari. Izan ere, domeka goizean ez zen giro errepidean ibiltzeko eta elurra ziharduena, goiak zuri-zuri uzteraino. Horregatik, lasterketaren ibilbidea laburragoa egin behar izan zuten, 43 kilometrokoa.

Ikustekoa zen helmugan txirrindularien aurpegia, hotzak hezurretaraino eta nekeak jota. Irabazlea nafar bat izan zen, esprintean: **Jorge Azantza** Caja Ruralekoa, Altsasukoa bera. Anaiari eskaini zion garaipea.

Hori dena **Asteleheneko Goienkaria**-n irakurri eta ikusi ahal izan genuen. Ze, *Asteleheneko Goienkaria*-k eman zuen informazio zabal eta osatuena lasterketaren gainean, argazki handi eder ugari, gainera. Hala aitortu dute antolatzaileek eta hala jaso dugu guk hemen. Harro gaudelako ibarreko taldeek gure lana aintzat hartzen dutela ikusteagatik, besteak beste, horretarako gaudelako, hemengo ekitaldien ahalik eta zabalkunde handiena emateko.

'AG'-n, Gorlako txirrindularitza igoeraren informazio zabal eta osatuena



AITZIBER GARAI |

UARKAPE JATETXEA,
ARRASATE

"Barruan aritzen gara lan eta lan asteburu osoan, eta *Asteleheneko Goienkaria*-k zer gertatu den esaten digu. Oso zerbitzu ona da. Bestetik, astelehenetan euskal prentsak zuen hutsunea betetzen du".



JOSU LIZARRALDE |

IRAKASLEA,
OÑATI

"Astelehenetan prentsa euskaraz irakurtzeko modu bakarra da, eta bultzatu beharrekoa. Ibarreko berriak gustura irakurtzen ditut. Osasunaren jardunaldiari buruzko berriak sumatzen ditut faltan".



KRISTINA BAKAIKOA |

LANGILEA,
ANTZUOLA

"Aspaldi ezagutu zenuen jendea nondik nora dabilen ere esaten dizu GOIENKARIAK. Herriko notiziez gain, Debagoien osokoak ekartzen ditu, eta gustatzen zait. Eta orain, astelehenetan ere bai".



GOTZON ELKORO |

ERRETIRATUA,
ELGETA

"Debagoien osoan asteburuan pasatu dena ekartzen du, eta oso gustura irakurtzen dut. Baita egubakoitzetakoa ere. Geurea da, eta zaindu egin behar dugu, denon artean. Oso pozik hartzen dut".



JUANJO ARRIETA |

ZINEGOTZIA (EAJ)
BERGARA

"Astelehenero hartzen dut. GOIENKARIAren eskutik, beste komunikabide batzuen bidez baino hobeto enteratzen naiz ibarreko kontuez. Munduko gertaerak beste inportanteak dira bertakoak".



FELIX BERRAONDO |

ERRETIRATUA,
BERGARA

"Argazki asko ditu *Asteleheneko Goienkaria*-k, eta oso erraz irakurtzen da. Gizartea, kirola eta kultura atalak ditu, besteak beste, eta ibarrean gertatu dena ondo jasotzen du. Oso gustura irakurtzen dut".



ARANTXA ARRIETA |

ETXEKOANDREA,
ELGETA

"Astelehenetan aldizkaria ateratzea oso ondo iruditzen zait. Euskara errazean dago idatzita, eta asteburuan gertatu den guztia jasotzen du. Etxeko guztiok irakurtzen dugu, eta gustura, gainera".



GOTZON DEL TESO |

IRAKASLEA,
ANTZUOLA

"Agian futbol kontu gehiegi ekartzen ditu, baina nahiko zaila da arerio horri aurre egitea. Orokorrean, dena dela, oso ondo dago. Debagoien osoaren zentzua hartzen du, eta hori garrantzitsua da".



AXUN GARAI |

ETXEKOANDREA,
ESKORIATZA

"Egubakoitzetan banatzen den GOIENKARIAren antzerakoa da, baina badu bere berezitasun propioa. Argazki asko ditu, eta albiste txiki asko jasotzen ditu. Asteburuan gertatu direnak ekartzen ditu".



GERMAN MURUAMENDIARAZ |

EUSKO LABEL
FUNDAZIOA, BERGARA

"GOIENKARIAk bertako notiziak ekartzen dizkit, batetik, eta euskaraz irakurtzen ohitzen nau, bestetik. Erdaraz egin ditut ikasketak, eta kosta egiten zait euskaraz irakurtzea, baina honek lortzen du".

Auto zaharren lege berriak arazoak sortu ditu biltegietan

Debagoieneko biltegi bakarrak ez du oraingoz legea guztiz betetzen

USOA AGIRRE

Akabo txatarretarako biltegi zaharrak. Ibilgailu erabilgaitzen gaineko legedia onartu zuen otsailean Europako Batasunak. Lege berri horren arabera, ezin dira orain nonahi pilatu autoak, eta pieza, likido eta gas kutsagarriak kendu behar zaizkie txikitu aurretik. Europako Batasunak ibilgailuko osagaien %85 birziklatu nahi ditu 2006rako, eta autoen %95 birziklatzeko eskatuko die auto biltegiatako arduradunei hemendik urte batzuetara.

Debagoienean auto biltegi bakarra daukagu, Bergaran dagoena. Bailarako kontzesionarioetako auto zaharrak, partikularrenak eta Elgoibar eta Eibar inguruko beste hainbat auto zahar ere eramaten dituzte Bergarako auto biltegiara. Aspaldian, baina, ez dute auto asko jaso. Izan ere, Europako Batasunak lege berria onartu zuenetik hainbat lan egin behar dituzte biltegiaren eta lan horiek egin bitartean ezin dute eman autoaren baja lortzeko behar den ziurtagiria. Orain gutxi arte, nahikoa izaten zen trafikoa sailaren ziurtagiri bat autoari baja emateko; orain, aldiz, baimendutako auto biltegiek eman behar dute agiri hori.

GASTU UGARI ETA LAGUNTZA GUTXI

Auto biltegiek baimena lortzeko, baina, lege berrira egokitu behar dute. Bergarako biltegioko jabeak, Andres Amadorrek adierazi digu oso eragin negatiboa izan duela eurengan lege berriak: "Berrikuntzak egiten hasi behar izan dugu goizetik gauera. Eusko Jaurlaritzak ez zigun inongo jakinarazpenik egin eta Espainiako Auto Biltegien Erakunde-



USOA AGIRRE

Legeak dioen guztia birziklatzen dute Bergarako biltegiaren, baina berrikuntza batzuk egin behar dituzte legea guztiz betetzeko.

aren bidez jakin genuen lege berria ezarriko zutela". Euskal Autonomia Erkidegoko auto biltegi askok negozioa utzi behar izan dute, lege berrira egokitzeko adinako dirurik ez zutelareta. Amadorrek esan digunez, oraingoz aurrera jarraitzeko asmoa du: "Gutxieneko gastua egingo dut, 30.000 euro inguruko inbertsioa. Aste Santu osterako lan guztiak amaituta egotea espero dut".

Legeak eskatzen duen guztia birziklatzen dute orain Bergarako biltegiaren, baina hori ez da nahikoa, berrikuntza batzuk ere egin behar dira: Autoak jasotzeko leku bat atondu behar da, hidrokarburoak bereizteko bes-

te leku bat, autoen deskontaminaziorako toki bat eta lurreen burdin hesi bat jarri, besteak beste. Lan horiek guztiak amaitutakoan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen saileko ikuskatzaileak pasako dira berrikuntza lanak ikustera eta haiek baime-

"Aste Santu osterako lege berrira egokituta egotea espero du Bergarako biltegioko jabeak"

na emandakoan hasiko dira ziurtagiri legalak banatzen.

IRUNERAINO BAJARAKO ZIURTAGIRI BILA

Begarako biltegiaren autorik jaso ezinda daude. Ezin dute oraindik autoaren baja lortzeko beharrezkoa den ziurtagiririk eman eta, ondorioz, bide bazterrean uzten dute batzuk auto zaharra. Beste batzuk, ordea, gertuen dagoen auto biltegiara eramaten dute autoa, agiria hori lortzeko. Gertuen dagoen auto biltegia, baina, ez dago oso hurren. Hondarribia edo Iruneraino joan beharra dago, oraingoz, auto zaharren zirkulazio baja agiria lortu nahi bada.

Autoendako lege berria

Auto zaharren biltegien gaineko lege berria Europako Batasunak onartu zuen eta joan den otsailaren hasieran jarri zen indarrean. 2006rako auto bakoitzaren %85 birziklatu beharko dute auto biltegiaren, baina asmoa da 2015ean %95 birziklatzera iristea. Autoaren zatien birziklapen hori hiru zatitan banatu nahi da. Alde batetik, autoaren atalen berrerabilpena bultzatu nahi da. Bestalde, material batzuk birziklatzeko asmoa dago. Azkenik, beste material batzuekin energia sortzea nahi dute, errekuntzaren bidez.

Auto zaharrak Eusko Jaurlaritzak legalki onartutako leku batera eraman behar dira eta biltegi horretako ziurtagiria behar da autoari baja emateko. Oraingoz, Debagoieneko biltegi bakarrak, Bergarakoak, ez du ziurtagiri hori emateko baimenik.

Lege berriak auto biltegiaren eta erabiltzaileen artean ez egiteko eragin eragiten du. Izan ere, legedi berriak fabrikatzaileei eskatuko die auto berriak ezberdinak izan daitezten. Autoaren atal bakoitzak identifikazio propioa eduki beharko du, eta horrekin batera, auto bakoitzarendako desmuntatzerako eskuliburu bat egin beharko dute, autoaren atal guztiak erarik onenean kentzeko.

UDALAREKIN ARAZOAK

Lurzorua industrialia ez delako arazoak dituzte Udalarekin

Berrikuntza lanekin batera, burokrasia alorrean ere hainbat arazo dituzte. Auto biltegia dagoen lursaila ez da industrialia eta Udalak ez du ondo ikusten auto biltegia hor kokatuta egotea. Bi urte barru edo, industrialdea egiteko asmoa du Bergarako Udalak eta auto biltegiaren jarri beharko dute.

Baina industrialdea egin gabe dago oraindik eta biltegia lege berrira egokitzeko lanak berehala egin behar dira. Oraingoz, lan horiek egingo dituzte biltegiaren eta bi urte barru ikusiko dute zer gertatzen den.

LAN ALDAKETA

Paper eta fitxa ugari bete behar dute orain auto bakoitzarekin

Lan egiteko era ere zeharo aldatu zaie orain biltegioko langileei. Hondakin guztiak fitxa moduko bat bete behar izaten dute eta Eusko Jaurlaritzara bidali hamabost egunetik behin.

Horrenbeste paper betetzeak lan egiteko moduan aldaketa handia izan du. Lehen ez zeuden ohitutak hainbeste paperekin lan egitera, eta orain lan horrek denbora asko galarazten die. Hala eta guztiz ere, momentuz ez zaie auto asko iristen, baja lortzeko ziurtagiria emateko baimenik ez dutelako.

AUTOEN BIRZIKLAPENA

Birziklatzera behartuta daude, baina ordaindu beharra dute

Pneumatikoak, bateriak, balazten likidoak, gasolina, gasolioa, olioak, kanbio kaxaren balbolina eta hoztaille edo errefrigeratzailea eramaten dituzte birziklatzera.

Andres Amador Bergarako biltegioko jabeak salatu duenez, horiek guztiak eramateagatik ordaindu egin behar izaten dute. Bateriagatik zerbait kobratzen dute, baina beste guztiak birziklatzera eramanez gero, ordaindu egin behar dute. Hori oso injustua iruditzen zaio Amadorri, "derrigortu egiten gaituzte hori egitera eta ordaindu egin behar".

EUROPAKO DIREKTIBA

Laguntza gutxi jaso dute Eusko Jaurlaritzatik

Oraingoz, Eusko Jaurlaritzak ez du legearen gainean ezer esan. Europatik datorren legea da eta Espainiako gobernuak onartu du, baina gero erkidego bakoitzak egin behar ditu kudeaketa lanak.

Andres Amadorrek zera adierazi digu: "Eusko Jaurlaritzak ez du ezer esan ez eta egin ere lege honekin. Guk, adibidez, Espainiako Auto Biltegien Erakundearen bitartez jakin genuen legearen berri". Oraingoz, ez dago biltegiendako dirulaguntzarik eta EAeko auto biltegi batzuek atek itxi behar izan dituzte.



Garizumari amaiera emateko, Arantzazuko igoera egingo du laugarren aldiz, Gipuzkoako gotzaintzak.

Arantzazuko igoera egingo du zapatuan Gipuzkoako gotzaintzak

'Fedeak bizi gaitu' goiburupen egingo da erromesaldia

OIHANA ELORZA

Erramu domeka bezperan egin ohi duen bezala, aurten ere ibilaldia antolatu du Gipuzkoako gotzaintzak. Euskal Herriko etorritako milaka lagunek hartuko dute parte, Joan Mari Uriarte gotzaiarekin batera. 09:30ean abiatuko da ibilaldia.

Bihar, zapatua, egingo du Gipuzkoako gotzaintzak Arantzazura egin ohi duen ibilaldia. Goizeko 09:30ean hasiko da, Oñatin, gotzainaren otoitzarekin batera.

Erramu domekaren bezperan egin du urtero, garizumari amaiera emateko, Arantzazuko igoera Gipuzkoako gotzaintzak. Jubileo urtearekin batera hasi zen ibilaldi hau antolatzen, 2000. urtean, eta biharkoa, beraz, laugarren igoera izango da. Bakearen eskaera benetan premiazkoa ikusi duen urtetan, bakearen aldeko ibilaldia izan da. Biharkoa, bakearen aldekoa izateaz gain, fedearen aldekoa ere, bada. Fedeak bizi gaitu goiburupen egingo da, hain zuzen ere. Izen-

buru horrek, Euskal Herriko gotzainen garizumako pastorari egiten dio kasu, eta testuak, pastorean landutako jasotzen du. Bi urtean behi egiten dute garizumako pastorala Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako gotzainek.

Joan Mari Uriarte Gipuzkoako gotzainak ere parte hartuko du zapatuko erromesaldian, aurreko urtetan egin duen bezala. Berarekin batera, milaka lagunek parte hartuko dute ibilaldian, zortzi, hamar mila pertsonak, gotzaintzaren arabera.

ANTOLAKETA

Gipuzkoako Gotzainak, Joan Mari Uriartek emango dio hasie-

*Joan Mari Uriarte
Gipuzkoako
gotzainak emango
dio hasiera eta
bukaera igoerari*

ra igoerari, eta Arantzazura helztean, beste otoitz bat egingo du gotzainak, berak.

Igoera isilik egingo da, baina bozgorailuak egongo dira ibilaldian zehar. Esaterako, Oñatitik Arantzazura bitartean dauden zortzi kilometrotan, Andoni Egañaren bertsoak entzun ahal izango dira, hainbat kantu eta otoitzekin batera.

Goizeko 09:30etan abiatuko dira erromesaldian Oñatitik, eta ordu bete lehenago, 08:30etan, itxi egingo dute Oñatitik Arantzazura doan errepidea. Beraz, ordu horretatik aurrera, ezin izango dira autoak pasa. Egurdiko 12:00ak aldera iritsiko dira ibilaldiko lehen lagunak, Arantzazura.

Gipuzkoako gotzaintzak autobusak antolatu ditu aurten ere, ibilaldian parte hartu nahi duten erromesak eroso etor daitezen. Autobusak, Oñatin geldituko dira, eta ibilaldia amaitzen denean, Arantzazura igoiko dira, bertan etorri direnak jasotzeko.

Ingurumenean gastatuko du Mankomunitateak diru gehien

Ia zazpi miloi eta erdiko aurrekontua 2004rako

OIHANA ELORZA

Eguaztenean onartu zuen aurtengo aurrekontua Mankomunitateak. Aurreko urtekoarekin konparatuz, %32 handiago da. Ingurumen arloarekin batera, garapen agentzia eta lurralde antolamenduarena dira diru gehien jasoko dutenak.

Bergaran egin zuen, eguaztenean, hileko batzarra Debagoieneko Mankomunitateak, eta 2004ko aurrekontua onartu zuen bertan, besteak beste.

Aurreko urtekoarekin konparatuz, %32 handiago da aurtengo aurrekontua, baina benetako igoera, %12koa da. Izan ere, aurreko urtean, 600.000 euro sobratu zitzaizkion Mankomunitateari, eta kopuru hori, aurtengo aurrekontuari gehitu dio. Honela, guztira, 7.439.190,50 euro-

ko aurrekontua du ibarreko Mankomunitateak, hau da, ia zazpi miloi eta erdi.

Aurrekontuaren banaketan, zati handiena, %61,3, ingurumen arloak hartuko du. Garapen Agentziak %10,7 eta lurralde antolamenduak, %14,7 jasoko du. Gai nontzekoa, beste arloendako izango da.

Ingurumenari garrantzia handia eman diote Mankomunitateko ordezkariak, eta Inazio Lakuntza presidenteari ahalmena eman diote Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren inguruan hartuko diren erabakietan eta negoziaketetan parte hartzeko.

Bestetik, ingurumenari lotuta, ibarreko herrietan aurkeztu duten Agenda 21 programa aurrea eramateko aholkularitza zerbitzu bat izango dutela onartu zuten, eguaztenean, Mankomunitateak egindako bileran.



Arlaban itxita kamioi baten istripua dela-eta

Zazpi ordu eta erdiz egon zen itxita Arlaban mendatea, bi norabideetan, martitzen goizean. 03:00etan, garraio berezia zekarren kamioi batek istripua izan zuen, irauli egin zen. 09:30ean hasi ziren kamioaren zama erretiratzen, eta ordu bete beranduago errepidea zabaldu zuten. Bitartean, Gasteizera joan edo handik etorri behar ziren auto gidariak, Leintz Gatzagatik igaro behar izan zuten. Kamioiak, aldiz, Kanpanzarretik joan behar izan zuten, eta gero, Urkiola edo Barazarretik. /O.E.

Servimasa

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
BERGARA



amaia corrales
maite aldaz

Psikologia kontsulta

- Familia, bikote eta bakarkako terapia
- Diagnostiko txostena
- Umeak, gazteak eta helduak

San Anton 10, 2. solairua. Oñati 943 78 01 55
Usandizaga 29, 1-B. Donostia 656 90 49 50

Jaurlaritzak Bergarako udaletxean egin du asteroko gobernu bilera

Errekalde jauregiko Irargi dokumentazio zentrorra egindako bisita aprobetxatu du Jaurlaritzak

OIHANA ELORZA

Ez da ohikoa Jaurlaritzak martitzenero egiten duen gobernu bilera Gasteiztik kanpo egitea, baina aste honetako Bergarako udaletxean egin du. Ibarretxe lehendakaria eta sailburu guztiak izan ziren Bergaran.

Goizeko 10:00etan zen hastekoa bilera, eta 09:30ak inguruan hasi ziren sailburuak Bergarako plazara iristen. Idoia Zenarrutza-beitia lehendakariordea eta Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua izan ziren iristen lehenak. Batera heldu ziren, nor bere autoan. Hauen atzetik etorri ziren gaitzakoak. Autotik jaitsi, eta udaletxeko sarrerara abiatu ziren guztiak. Miren Azkarate Hizkuntza sailburu eta Jaurlaritzaren bozeramaileak izan zuen lan handien, bilera ostean eman behar zuen prentsaurrekoaren txostenak baitzekartzan autoaren maletategian. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria iritsi zen azkena, 10:00etarako minutu bat falta zela. Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak guztiak agurtu zituen kontzejupuan, eta ongie-torria eman.

Gobernu bilera hasi aurretik, argazki ofiziala atera zuten Jaur-laritzako eta Bergarako Udaleko ordezkariak, elkarrekin. Eguerdian, prentsaurrekoa eman zuten Azkarate eta Agirrek, eta ostean, Irargi dokumentazio zentroa bisitazera joan ziren guztiak. Bergaran bazkaldu zuten.



Jaurlaritzako ordezkariak Bergarako Udalekoekin batera atera zuten argazki ofiziala.

OIHANA ELORZA



Miren Azkarate eta Ana Agirre, prentsaurrekoan.

OIHANA ELORZA



Udaletxetik Errekalde jauregira bidean.

OIHANA ELORZA

BILERAREN ERABAKIAK Euskara, nekazaritza, kirola eta industria

Euskara eta hedabideen arteko harremana sustatzeko laguntzak, zinema sorkuntzarako, kirol jarduerendako laguntzak eta esnearen sektorean Europako zuzeneko laguntzak arautzea.

Industria Legearen lege proiektua onartu zen. Legebiltzarrerara eramango dute.

BI GAIREN BALORAZIOA Leitzako atentatua eta Kalitatearen Legea

Ainara Gorostiagaren inguruan, sistema judizialak sinesgarritasuna galdu duela esan du Jaurlaritzak, eta torturak argitzeko eskatu du.

Kalitatearen Legeari buruz, berriz, erokeria dela eta Euskadik bere hizkuntza sistema propioa duela gogorazi du beste behin.

SEGURTASUN NEURRIAK Segurtasun neurriak ikusten ziren kaleetan

Goizean goizetik, segurtasun neurri handiak ikusten ziren Bergarako kaleetan. Bidegurutze gehienetan zeuden ertzainak.

Lehendakaria eta sailburuak udaletxe barruan zeuden bitartean, herriko plazan eta kaleetan jarraitu zuten segurtasunekoek.

KOMUNIKABIDEAK Komunikabide ugari etorri ziren Bergarara

Komunikabide guztiak etorri ziren martitzeneko ezohiko hitzorduaren berri ematea. Han zeuden, besteak beste, T5, A3, ETB, TVE eta GOITB-ko kamerak; Euskadi Irratiko, Radio Euskadiko eta hainbat irratitako kazetariak eta makina bat egunkaritako argazkilariak.

LABUR

Autodeterminazioa aldarrikatuko dute zapatuan

Bihar, zapatua, *Autodeterminazioa orain* izenburupean, manifestazio nazionala egingo da Bilbon, eta bertara joateko, autobusak antolatu dituzte Debagoieneko herri gehienetan. Manifestazioa Aita Donostia kaletik abiatuko da, 17:30ean.

Hizkuntza Eskubideen Eguna domekan Lesakan

Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatuta, Hizkuntza Eskubideen Eguna egingo da domekan Lesakan. Aurten lehen aldia izango da nazio mailan hizkuntza eskubideen aldeko egun bat ospatzen dena. Ibarreko EHEk autobusak jarri ditu, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergararik.

Aretxabaletako Beroako etxeen jabeak, haserre

Aretxabaletako Beroa gunean etxea erosi duten bizilagunak ez daude konforme eraikuntza enpresaren jarrerarekin, eta haserre erakusteko, bilera egingo dute gaur arratsaldean. Erosle batzuek salatu dutenez, eraikuntza enpresa ez da zuzen jokatzeko ari eta ez ditu euren kexak aintzat hartzen.

Sutea Antzuolako Arreluzaundi baserrian

Eguazten eguerdian, ordu biak inguruan, su hartu zuen Arreluzaundi baserriko tximiniak, eta ganbara erretzeko arriskua zegoen. Suhiltzaileak eta ertzainak bertara joan ziren, eta zorionez, ez zen kalte handirik egin. Duela hilabete, beste horrenbeste gertatu zen Idibar baserrian, Irimo auzoan bertan.



ZUREZKO BIZILEKU BIOKLIMATIKOAK

Zbb

C/ZORROLLETA, 5
01015 GASTEIZ
T. 945 29 06 06
615 78 28 23
WWW.ZBB.ES

Carrión
música, s.a.

- Gitarrak, baxuak, amplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

Olatz Alcelay Dk.

Kirurgia plastiko, estetiko eta konpontzailean espezialista

Lipoeskultura-Liposukzioa
Betazal kirurgia
Sudur kirurgia
Belarriak zuzendu
Sabel kirurgia
Bularrak handitu eta txikitu
Aurpegi liftinga



INSTITUTO
VASCONAVARRO
CIRUGIA PLÁSTICA
Y ESTÉTICA

Santa Maria de la Asuncion klinika
Izaskun errepeidea 9 · TOLOSA · Tel.: 943 67 57 77

Virgen del Pilar osasun etxea
Zarategi pasealekua 10 · DONOSTIA · Tel.: 943 29 75 88

3PS 01/19/03

Daniel Barandiaran

HISTORIALARIA ETA TEOLOGOA

**“Gizakiaren azken arerioa
islama izango da. Hamar urte barru ez
da Europarik egongo eta bere heriotza
izango da munduaren bukaera”**

Eskoriatzan jaio zen, duela 82 urte, baina Euskal Herritik kanpo eman ditu urte gehienak. Venezuelako gobernuan egin du lan urtetan, NBEko ordezkaria izan da, eta oso gertutik ezagutzen du mundu arabiarra. Filosofia eta Letrak, Historia, Etnografia eta Teologia ikasi ditu. 12 liburu idatzi ditu, eta beste horrenbeste hizkuntza dakizki.

OIHANA ELORZA

Venezuelan 48 urte egin ostean bueltatu zara etxera, behartuta, diozunez.

Chavez hiltzen dutenean joango naiz berriro, baina ez lehenago.

Venezuelako gobernuan 27 urtez egin dut lana, kanpo harremanetarako ministroaren aholkulari. 72 urterekin eman zidaten erretiroa, eta orain, dena utzita etorri behar izan dut etxera. Chavezen gobernuak ez dit uzten banketxetik dirurik ateratzen, eta ezin dut pentsiorik jaso. Emaztea eta biok Caracasen genuen etxea kolonbiar langile batzuei utzi, eta Oionera etorri gara.

Nola heldu zinen hara?

Ni, 13 urte nituela, San Viator ikastetxera joan nintzen, handik Valladolidera eta Zaragozara. Frantziara joan nintzen ostean, eta Beirut eta Jordaniara ondoren. Historia eta Etnografia ikasi etaislama eta mundu arabiarren inguruko tesia egin nituen urte haietan. Frantziara joan nintzen berriro, Teologian lizentziatu, eta berriro bueltatu nintzen Jordaniara. Han,

paludismoa hartu nuen, eta Frantziara joatea erabaki nuen.

Venezuelako misio batera joateko aukera eskaini zidaten, eta onartu egin nuen. Orinokoko *makiritares* tribuarekin bizi izan nintzen bost urtez. Santa Maria de Herebato herria eraiki genuen: eskolak egin, argindarra sartu, hegazkinak lur hartzeko pista eraiki... Fraide batzuek hartu zuten herriaren ardura, eta ni *Hijos de la Luna* izeneko beste tribu batengana joan nintzen. Beste bost urte egin nituen haiekin, oinutsik eta tximuak, arratoiak eta bestelakoak jaten. Oihanean bertan bizi zen, eta horrela bizi izaten jarraitu nahi zuten. Ikusi nuen ez zela posible izango herri bat eraikitzea, eta bestelako laguntza eskaini nien. Paludismoak jota zegoen tribu hura, eta osasuna hobetzen lagundu nien. Hango kide batzuk aukeratu, eta erizain izaten erakutsi nien: gaixotasunei aurre egiten eta zauriak garbitu eta zaintzen, besteak beste.

Eta oihanetik, gobernura.

Kaliforniako unibertsitatean lagun bat nuen. Elkarrekin egin genituen Etnografia ikasketak. Berarekin batera lan egitea proposatu zidan. Hegazkinek txartela erosi nuen, eta joateko egun gutxi falta zirela, Venezuelako kanpo harremanetarako ministroak bere ondoan behar ninduela esan zidan. 27 urte egin ditut lan horretan.

Harremanak sendotu zenituen?

Kolonbiako gerrillak eta diamante bila Orinokora joaten ziren Brasilgo meatzariak osasuna lapurtu zidaten. Jende asko ezagutu nuen garai hartan, herrialde askotako ordezkariak, esaterako, eta asko ikasi dut haiekin batera.

NBEko egonaldia ez zen hain gogorra izango.

Garai huraxe da lotsa ematen didan sasoi. 3 urte egin nituen, baina nire bizitzako urtetik lotsagarrienak dira, tristee-nak. NBEko ordezkariak lapurrak, ergelak, arduragabeak eta diruzaleak direla ikusi

nien. Egia da, bestalde, urte haietan egin nuen diruari esker erosi nituela, neurri handi batean, Caracasko etxea eta baita Oiongo etxea ere. Geneva eta Nueva York bitartean pasa nituen 3 urte haiek.

Birritan eman dizute sari nazionala, kultura eta historiakoa.

Kulturako sari nazionala Chavezen gobernuan lan egiten duen jeneral batek eman zidan; gainera, nire ikasle izandako batek. Kolonbiako mugen zuzendari izendatu zuen Chavezek, eta bere laguntzailea izatea eskatu zidan, eta noski, ezetz esan nion.

Historiako sari nazionala, aldiz, 1993. urtean eman zidaten, erretiratu nintzen urtean. *Brasil nació en Tordesillas* liburuagatik eman zidaten. Orain, liburu horren bigarren atala idazten ari naiz Oionen, etxean.

Jordanian ere bizi izan zara. Zure adopzio herri omen da hura.

Beiruteko Unibertsitatean Etnografia ikasketak sakondu nituen, eta tesia egitera Jordaniara joan nintzen. Al Aqsa meskitan eserita nengoela, Jordaniako Abdullah erregea sartu zen, gero errege izango zen Hussein biloba eskutik helduta. Bat-batean, metraileta tiro batzuk izan ziren, eta erregea hil egin zuten. Hussein aitona zutitzen ahalegindu zen, baina hilda zegoen. 1951ko uztailearen 21a zen. Urte batzuk geroago, Jordaniako tribu batean erizain gisa lanean ari nintzela, Hussein etorri zen. Tribu guztiak bisitatu zituen. Bere jeneral batek ezagutu egin ninduen, eta aitonaren hilketaren testigu izan nintzela kontatu zion. Hurbildu, eta sorbalda gainean negar egin zidan. Venezuelako gobernuan nengoela ere bisitatu nuen, eta etxean hartu ninduen Husseinek, Jordaniako erregeak.

Gizakiaren azken arerioaislama dela esateko adina ezagutzen duzumu mundu arabiarra?

Bai. 10 urte barru ez da Europarik izango. Paris eta Erroma desagertu egingo



NAZIO BATUEN ERAKUNDEA

“NBEko ordezkari izan nintzen 3 urtez, eta garai hura da lotsa handien ematen didana. Ordezkariak lapurrak, ergelak, arduragabeak eta diruzaleak direla ikusi dut”

HUSSEIN JORDANIAKO ERREGA

“Al Aqsa meskitan eserita nengoela, Jordaniako Abdullah erregea sartu zen Hussein biloba eskutik hartuta. Erregea metraileta tiroz nola hil zuten ikusi nuen”

FUNDAMENTALISMO ISLAMIARRA

“Munduaren azkena Europaren heriotza da, eta 10 urte barru ez da Europarik izango. Paris eta Erroma desagertu egingo dira. Madrilgoa hasiera baino ez da”

BARANDIARAN ETA UGALDE

“Martin Ugaldek anaia izango banintz bezala hartzen ninduen Venezuelako etxean. Joxe Migel Barandiaranekin ere harreman handia izan dut beti”



OIHANA ELORZA

go dira, bonba atomikoz. Munduaren azkena Europaren heriotza izango da. Madrillgo atentatua hasiera besterik ez da izan, eta urtebete baino lehen beste atentatu handi bat gertatuko da Europan.

Non okertu da mundua? Noiz erotu eta aztoratu da?

Kontsumismoa gailendu da mendebaldean, eta horixe da bere arazoa. Kontsumismoa da mendebaldearen gaitza, eta horren aurrean ezin da ezer egin, heriotza baino. Kristauak izateari utzi, eta kaka gara orain. Mendebaldea kaka handi bat da, eta hori, fundamentalismo islamiarrak garbituko du.

Afrikan, milaka ume hiltzen dira gosez, eta hiesak jota, eta mendebaldeak ez du ezer egiten. Elizak banketxeen truke aldatu ditu mendebaldeak, eta dirua da erregea orain.

Konponbiderik badu?

Nire ustez, kazetariak eta gizarte taldeek erantzukizun handia dute. Benetako egoera latza agertu behar dute.

Saddam Husseinek bi milioi eta erdi edo 3 milioi lagun inguru hil ditu agintean egon den 30 urteetan. Eta ez gerratean ondorioz, berak hil ditu. Nik ez dakit Iraken deuseztapen handiko armak dauden edo ez, baina istorio hori asmatu behar al zen horrenbeste lagun hil dituen agintari baten aurka egiteko? Berdin gertatzen da Israelen eta Palestinaren arteko liskarrean ere. Nik ez dut Israel defendatzen, baina zergatik deitzen diote *lider espiritual* horrelako saltsa batean dagoen bati? Kontzeptuak zeharo nahastu dira, eta ez dira behar bezala erabiltzen.

Los Hijos de la Luna liburua oparitzenion Joxe Migel Barandiarani.

Bai, Eskoriatzan aurkeztu dudana bera. Aspaldi ezagutu nuen, eta 100 urte bete zituenean, ondoan zuen liburua. Zorionak eman zizkidan, bera urtetan ibili zelako gizaki primitiboaren inguruan ikerketak egiten, eta ni 10 urtez bizi izan nintzelako haiekin. Harreman handia nuen berare-

kin, eta tartekoak gara, gainera. Oraindik ez dakit zehazki non dagoen bakoitzaren tokia familiako zuhaitz genealogikoan, baina badakit gure aitzindariak Ataungoak zirela.

Nolakoa da liburu hori?

Venezuelako Orinokoko oihaneko tribuen ingurukoa da. Batetik, landutako testua dauka, baina bestetik, argazki asko ere baditu. Agian, turistendako, Venezuelakoak ez diren kanpotarrendako egin dudana libururik egokiena da. Egin ditudan besteak sakonagoak dira, eta lan handiagoa hartu dut horiek idazteko, baina historia liburu potoloagoak dira.

Martin Ugalderekin etxera sarri joaten zinen Caracasen.

Bai, anaia bat banintz bezala hartzen ninduen. Hirira joaten nintzenean, bere etxera joaten nintzen, eta hantxe egoten ginen Martin Ugalderekin, haren emazte Ana Mari, seme-alabak eta ni neu.


Venezuelak zapora gazi-gozoa utzi dizula diozu.

Lan handia egin dut herrialde horretan, eta behar bezain beste ez didatela errekonozitu uste dut. Esaterako, *marikitares* tribuan egon nintzenean, neuk idatzi nuen haien hizkuntza egindako gramatika liburua. Baina tamalez, antropologia liburuetan baino ez da agertu. Oraindik ez dute behar bezala errekonozitu eta publikatu, eta horrek pena handia ematen dit.

Bestalde, Venezuelak orain bizi duen egoera oso latza da. Jende asko gosez dago, biolentzia handia dago, beldurra. Kazetari guztiak erositatu dituzte Chavezek.

Noiz hasiko zara hau guztia jasoko duen liburua idazten?

Horixe bera galdetzen dit arrebak ere. Gure aitona 102 urterekin hil zen, eta nik horrenbeste hartuko nituela esan zidan, beraz, badut astia. Orain, saritutako liburuen bigarren atala bukatu nahi dut. Euskadiren historiaren ingurukoa idatzi nahi dut ondoren, eta gero hasiko naiz nire bizi-tza idazten.



OIHANA ELORZA

“Kanposantuan dago herri honen independentzia?”

Nola ikusten duzu Euskal Herria?

Euskadin, 1984an, hiltzen ziren beste jaiotzen ziren; 1990. urtean, herritar gehiago hiltzen ziren, jaio baino; eta 2002an, berriz, jaiotzak baino 12.000 heriotza gehiago izan dira. Beraz, kanposantuan dago herri honen independentzia? Martxa honetan, 100 urte barru, ez dago Euskadirik, eta mende bat ez da ezer herri baten historian. Beno, egia esan, 100 urte barru, ez da mun-

durik egongo. Azken hauteskundeetan, 1.800.000 lagunek izan genuen boto eskubidea Euskadin, eta adin txikikoak, aldiz, 200.000 bakarrik dira. Etorbizuna izango duen herri baten adin txikiak kopuruak boto eskubidea duenaren erdia izan behar du, gutxi gorabehera.

Hori guztia jasoko duzu idatzi behar duzun liburuan?

Oraintxe hasi naiz datu hauek ikusten.

Gasteizera joan nahi dut, hango artxiboak ikusi eta paperak irakurri eta aztertzeko.

12 hizkuntza dakizkizu, eta ez zaizu euskara ahaztu.

Euskara batua ez dut ulertzen, ordea. Hitz asko ez ditut ezagutzen, eta ez naiz gai euskaraz txukun idazteko. Baina Oionen badugu ikastola, eta egunen batean bertara joan, eta gela batean sartuko naiz, euskara ikasteko.

Zabalik

JON
LOPEZ“Háblame en
cristiano”

Batzuek horrela erantzuten digute. Beste batzuk, ordea, “no te entiendo” esatera mugatzen dira, eta lotsa apur bat dutenek, “lo siento, no te entiendo, ¿puedes hablarme en castellano?”. Kasu horietan guztietan gure hizkuntza eskubideak ukatzen dizkigute, hau da, euskaraz hitz egitea ukatzen digute. Ospitalean, epaitegian, ikastetxeetan...

Eguneroko ogia denez ohitu egin gara, baina gauza bat argi eta garbi izan behar dugu: gure eskubide da euskara ikastea eta erabiltzea. Euskararen Herria hiru administrazioetan banatuta daukate, eta administrazioaren arabera euskararen egoera ezberdina dela esaten digute. Baina euskaldunoi berdin eragozten digute euskaraz aritzea Arrasaten, Iruñean nahiz Senperen. Noski, Frantziako nahiz Espainiako konstituzioek euskara benetan babesteari muzin egiten diote.

Beraz, gure hizkuntza zaharra da eta ahul dago, baina gure esku dago zaharberritzea eta berrindartzea. Horretarako, EHEk Ofizialtasunaren aldeko lanean dihardu, lege babesa beharrezkoa delako euskararen erabilera jendartearen esparru guztietan ziurtatzeko, Euskal Herri osoan. Eta horretarako euskaldun guztiok egunero gogor lan egitea beharrezkoa dugu, bestela inork ez baitu euskara zainduko eta indartuko. Guk ezin diogu kalerik egin.

Ildo horretan, etzi (domeka, apirilak 4) Hizkuntza Eskubideen Eguna ospatuko da Lesakan, Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatuta. Aukera polita iruditzen zait gure eskubideak hobeto ezagutzeko, ondo pasatzeko eta esperientziak Euskal Herriko beste lagunekin elkartrukatzeke, ezta?

Gutunak

Herri eskolak

Bergarako Ikasle Abertzaleak taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu gaurko, apirilaren 2rako, *Jira eta bira, eskolak herrira!* lelopean. Egun batez bada ere, euskal ikasleriak praktikan jarriko du defendatzen dugun eskola proiektua, Euskal Eskola Nazionala. Eskolak herrira eraman eta eskolak herriaren zerbitzura jartzea da herri eskolen helburua. Euskal Herriari buruzko edukiak edo Euskal Herriko ikuspuntutik landutakoak dira herri eskolen oinarriak. Euskal Herriaren ezagutzatik abiatuta, mundua aztertuko dugu.

Egun oso batez, askatasunean eta elkar-tasunean oinarriturik kritikotasuna bul-tzatuko dugu. Nesken eta mutilen arteko desberdintasunetik abiatuta, kidesuna eta berdintasuna bermatuko ditugu.

Herri eskola proiektuaren abiapuntua IAK osatu zuen euskal ikasleen eskubide-en karta da. Hizkuntza, kultura eta hez-kuntzarako eskubidea, ikas baldintza dui-nak izateko beharra, kolektibo gisa jarduteko eta Euskal Herrian ikasteko eskubidea, besteak beste, jasotzen dira idatzi horretan.

Herri eskola honek egun osoko egita-raua izango du, eta hitzaldiak, manifesta-zioak, triki poteoa, bazkaria, jolasak eta kon-tzertuak egingo dira.

IKASLE ABERTZALEAK
BergaraBergarako Udala
demokratizatu

Astelehenean, martxoaren 29an, hileko Aohiko osoko bilkura egin zen. Bergara Aurrerako zinegotziok parte hartzeko boron-date eta konpromisoarekin bertaratu ginen. Bi puntu geneuzkan tratatzeko: bata, gaien zerrendan sartutako Debagoieneko Tran-biaren inguruko alegazio proposamenak eta zenbait hausnarketa; bestea, orain dela egun batzuk geuk sartutako mozioa. Iruñean eta Hernanin suertatutako gertaera latz eta tamalgarrien ondorioz Anjel Berrueta eta Kontxi Sanchizen hilketen salaketa egi-ten genuen.

Zoritxarrez, apartheid, isolamendu poli-tikoaren aurpegi latza ikusteko parada izan genuen berriz. Victoriano Gallastegi alka-

teak “baimenik ez genuela eskatu eta hitzik ez geneukala” ondorioztatu egin zuen. Guk, aho bete hortz gelditu arren, gure eskubi-dearen defentsa egin genuen. Zoritxarrez, eta beste behin berriro ere, bakarrik geldi-tu ginen. Inor ez zen gure alde azaldu.

Osoko bilkurak hiru minutu baino gutxia-go iraun zuen, baina nahikoa denbora da ego-era ez demokratikoa azaleratzeko. Gure eskubideak errespetatu, aitortu eta berma-tu beharrean, ate guztiak ixten dizkigute.

Bilkuraren ostean, plazan kale bilkura egin genuen, eta bertan 30 lagun inguruk esku hartu genuen aldarrikapen bat herriratzeko: *Apartheid, isolamendu politikoari ez, gure eskubideak aitortu, errespetatu, auto-determinazioa.*

Hurrengo egunean (martitzena, 30), Iba-rretxe buru zuela, Eusko Jaurlaritzako Gobernu batzartu zen Bergarako udale-txean. Victorianorendako “egun histori-koa”. Despliege polizial izugarriaren erdian, protokoloa, gure pankartak, apartheid poli-tikoa salatzen zutenak, kaletik kentzea bar-ne, guztiarekin ongietorria eman zieten. Bertan zinegotzi gehienak egon ziren; ez denak, guri badaezpada abisua pasatu ere ez ziguten egin. Bagenuen bai Ibarretxeri zer esan, gogoan ditugu Martxoaren 11ren ingu-ruan egindako adierazpen tamalgarriak. Gustura egingo genion proposamen bat: PSOERI begiratzeari utzi eta herri honen eskubide historikoen defentsa azkeneko muturreraino eraman. Autodeterminazioak eta lurraldetasunak ezinbesteko piezak izan behar dute.

Zoritxarrez ez genuen aukerarik izan, ezjakinean eta gonbidapen barik harrapatu baikintuen.

BERGARA AURRERA
BergaraGarbiguneen
ordutegia

Nire lanagatik —igeltseroa naiz— sarri nerabili ohi ditut Debagoieneko Man-komunitateko garbiguneak, bereziki Ber-garakoa. Alde batetik, esan beharra dau-kat eskertzekoa dela horrelako zerbitzu bat gure esku izatea. Baina, beste alde batetik, zerbitzu horri hobetu beharreko gabeziak ikusten dizkiot. Batez ere, ordutegia.

Sarri gertatu izan zait goizean lan bat

hasi, komun bat konpontzea adibidez, eta eguerdirako eskonbroak furgonetan kar-gatuta edukitzea, baina botatzera joan eta garbigunea itxita egotea. 12:30ean ixten da garbi gunea eta arratsaldeko 16:00etan ire-kitzen da berriro. Tarte luzeegia iruditzen zait. Tarte horretan furgoneta eskonbroz kargatuta eduki behar izatearen ondorioa askotan izaten da bitarte horretan ezin izate dudala beste lanik egin.

Horregatik, igeltseroak garenontza-ko beharrezko ikusten dut Mankomuni-tateko garbiguneak eguerdiko tarte horre-tan ere irekita egotea. Eta ez dut uste baka-rrik igeltseroentzako ona denik, baita beste edozein profesionalentzat eta baita partikularrentzat ere. Adibidez, eta ezagutzen dudan beste adibide bat delako aipa-tzen dut, dendariantzat. Garbiguneek dau-katen ordutegiagatik (goizetan 09:00eta-tik 12:30era eta arratsaldeetan 16:00etatik 19:00etara) dendari askok ezin dira gar-biguneetara joan, zerbitzu hori ematen den orduetan dendari horiek denda irekita eduki behar dutelako.

FERNANDO SASIAIN
Bergara

Utzi bakean

Martxoaren 11n Madrilén gertatutako M sarraskiak ondorio latzak ekarri ditu geurera ere; izan ere, Espainiako eskuin-dar faxistekin batera, Euskal Herriko zen-bait alderdik ere euskaldunon aurkako dinamika bat jarri dute abian. Gezurrak esa-nez lehendabizi, eta errepresio basatiari ate-ak irekiz. Komunikabide desberdinek esta-li nahi izan badute ere, ondorio gogorak eragin ditu M-11n martxan jarritako dina-mika horrek. Lehendabizi, Anjel erail zuten, komunikabideen laguntzaz zabaldutako gorrotoitsuak hil zuten. Bidegabekeria hau salatzeke mobilizazio ugari egin ziren Eus-kal Herri osoan, Kontxi ere haietako bate-an zen Hernanin Ertzaintzaren karga baten eraginez bizia galdu zuenean. Eraso masi-bo hau ez dugu kalean gaudenok bakarrik jasan, ordea, espetxeetan preso sozialek, fun-tzionarioen laguntzarekin, euskal preso politikoak gupida gabe jipoitu dituzte.

Euskaldunok, nonbait, ez dugu mere-zi inongo azalpenik gobernuaren bertsio ustelaren alde eginaz saldu gintuztenen ahotik. Afera honen eraginez bi pertsona

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



erailak izateak ez du pisurik, nonbait. Egindako hanka-sartzea ezkutatu nahirik, berebiziko garrantzia duten gertaerei pisua kentzen ari dira. Noiz arte jasan beharko ditugu zuen gezurrak? Noiz arte erabiliko dituzue komunikabide publikoak (espainiarrak eta euskaldunak) errealitatea distortsionatzeko? Noiz arte erabiliko duzue errepre-sioa jendea isilarazteko?

Euskal Herriak salbuespen egoera jasaten du oraindik ere, eta egoera latz honi bere neurriko erantzuna eman beharrean gaude.

LEINTZEKO ASKATASUNA
Debagoiena

Euskarazko zerbitzu duina

Fagor: Por Fagor, yo quiero las azalpenas en baskuente. / Io chero le instrucczioni en basqui. / Please, I want the instructions in basque. / Bitte, Ich möchte die instructionen in basquisch.

Gaizki ulertuta badut, ondoren esango dudana zuzenduko nauzelakoan nago. Fagorren hasiera Arrasaten ezagutu genuen eta garai hartatik gure eskualde txiki honetako bizimodua zeharo baldintzatu egon da. Onerako zein txarrerako. Arrasateko kooperatiben esperientziaren inguruan zenbait kritika entzuten ohituak gaude. Langile mugimendua baretzeko sortua izan zela, Arizmendiarrera, inguruko kooperatibismoaren aita, Francoren laguna zela, baita egungo errektore batzordeko kideak Opus Deikoen lagun minak direla ere. Esan hauen guztien aurrean kooperatibismoa beti azaldu izan da Euskal Herriaren alde, Euskal Herriko sustapen ekonomiko eta sozialaren aitzindaritzat jo izan du bere burua, eta, nola ez, euskararen normalizazioan ere parte hartu nahi izan du. Ezagunak dira MCC-ko zenbait lantegitan aurrera eramaten ari diren euskara planak. Langileei erraztasunak eman euskara ezagutzeko eta ikasteko, errotuluak zein dokumentuak euskaratu..., eta, azken finean, euskara plan batek bere baitan hartzen dituen pauso guztiak. Ez dago gaizki! Beste batzuek gutxiago egingo dutela, seguru! Horregatik, hain zuzen ere, etxetresna elektriko bat erostean, Fagorren alde egiten dugu apustu kontsumitzaile askok.

Aurreko astean, Fagor etxeko garbigailu bat erosi nuen, azken modeloa, bost urteko garrantia, garbitzeaz gain sikatu ere egiten duten horietakoa, apartekoa! Orain arte gurasoen etxean bizi izan naiz eta, egia esan, ez dut garbigailua sarri erabili, eta noski, ezer egin baino lehen informatzea erabaki nuen. Instrukzio orriak ez, instrukzio txostena eskuetan hartu eta patxadaz ezarri nin-

tzen, guztia behar bezala ulertu ezean garbigailua martxan jarriko ez nuela pentsatuz. A ze sorpresa, hizkuntza pilo baten dator garbigailuen erabilpenaren azalpena, alemana, italiara, ingelesa (nola ez!)... Baina euskara? Non dago euskarazko azalpena? Txostenari hamaika buelta eman nizekion, baina han ez zen euskarazko hitzik inondik inora azaltzen.

Gure izaera ez du maila sozio-ekonomikoak bakarrik definitzen, gure izaera gure hizkuntzak eta, azken finean, gure kulturak ere definitzen du. Bejondeiola MCCri euskara planak martxan baditu, baina apustu bat egiten denean, apustu on guztiak bezala, izan dadila erabatekoa. Egia da, norbaitek hala badio, planak epe luzekoak izaten direla. Egia da baita ere txikian dagoela indarra. Alferrikakoa da Fagorreko logotipo, errotulu eta kanpora begira dituen dokumentu guztiak euskaraz izanik, lantegietan, langileen artean harreman guztiak beste hizkuntza baten funtzionatzen badute. Hala ere, nik Euskal Herrian eta Euskal Herriko produktu bat erosten dudanean euskarazko zerbitzu duin bat jaso nahiko nuke, eta are gehiago, zerbitzu hori jasotzeko eskubide osoa dudala esango nuke, eta min ematen dit eskubide urraketa hori gure eskualdean bere burua behin baino gehiagotan herrikoitzat eta euskalduntzat jo izana duen empresa batetik etortzea.

NEREA ALTUNA, KONTSUMITZAILE BAT
Debagoiena

Jan barik eta eskubide eske

Betiere, errazagoa izaten da, nonbait, Burretikoen arazoak ulertzea. Solidarizatu eta onartzea. Hala ere, inguruan gertatzen denaz ez gara jabetzen askotan, agian bakoitzaren beharrei begira nahikoa lan izaten dugulako, edo geroz eta indibidualistagoak gara akaso.

Kasu honetan, bertako baten berri ematera gatoz, inork asti apur bat izango balu irakurtzeko: honako gizon honek 15 egun daramatza ezer jan gabe, eta hilabetean behin soilik hitz egin dezake etxekoekin. Astean behin norbaiten bisita jasotzen du, eta 6 hilabetean zehar 10 pertsonak bakarrik ikus dezakete. Eta ezin du beste inor ikusi. Albaceteko espetxean beste hiru euskal preso politiko bezala, Txus ere bakartuta dago modulu batean.

Honen aurrean, honako hau da Txusek, Jesus Marik, Zigorrek eta Sebasek eskatzen dutena: astean behin telefono dei bat egitea; beste hiru presoek batera modulu berean egotea; bera bisitatu nahi dugun guztion artean 10 pertsona 6 hilero ordez, 3 hilero aukeratu ahal izatea. Asko eskatzea al da?

Eskakizun xume hau egiteko, ezinbestean, gose greba mugagabea hasi

zuten martxoaren 15ean. Txusek gaur 15 egun daramatza jan gabe. Zilegi al da honetara heldu behar izatea?

Euskaldunok bizi dugun gatazka politikoaren beste kapitulu mingarri baten aurrean gaude. Berrero. Eta Txus gatazka honek eragindako beste euskal preso politiko bat da. Egoera honetara eraman duen gatazkari konponbidea emango dion prozesu politikoan parte hartzeko eskubidea du. Euskal Herriarra delako, berak ere baduelako zer esan. Alta, bere etxetik 627 kilometrorra dago sakabanututa hainbeste aldiz salatu dugun dispersio politika dela eta. Ez da justua eta ezin da onartu.

Noiz arte jasan behar ditugu honelako bidegabekeriak? Ez dezagun geure burua engaina, ez ditzagula begiak itxi. Etxea konponduko badugu, ezin ditugu etxeok kanpoko espetxeetan banatuta utzi. Are gutxiago honelako baldintza kaxkarretan. Gatazka konponduko bada, euskal presoek ere Euskal Herrian behar dute izan, beraiek ere eragileak direlako afera honetan.

Txusek hasi duen gose greba mugagabea dela eta, egunero kontzentrazioak antolatu dituzte. Askatasuna-tik bertara zuen elkatasuna adieraztera joateko eskatzen dizuegu herritar guztiei. Herriko Plazan izango dira 19:00-19:15 bitartean, egunero.

Has gaitezen pausoak ematen. Eskerrik asko, zure denbora eta interesagatik, irakurle.

ARRASATEKO ASKATASUNA
Arrasate

Ospitaleko tratua dela-eta

Azkenaldian makina bat buelta eman adut Arrasateko Ospitalera. Eztarriko min arrunt batekin hasi, eta azkenean, ebakuntza-gelatik pasatu naiz hiru hilabete geroago. Baina, ebakuntza gelara ailegatu aurretik, ospitale barruan ibil daitezkeen leku guztiak ibili ditugu nire eztarriak eta biok: famili sendagilea, urgentzietako zerbitzua, otorrinoen kontsulta, eskaner gela, eguneko ospitalea, etab. Egonaldi guztiak kontuan hartuta, hamar egun eman ditut erietzeko gelan, harik eta amigdalek operazio-gelan bukatu duten arte.

Joan-etorri, buelta eta ibilbide hauek guztiak egin eta gero, ez dakit nolakoa den gure Ospitaleko gestioa, ez ditut ezagutzen zuzendariaren aurpegia eta izena, ez dakit ze teknologia erabiltzen den operazio geletan, edota goi mailako laserrik ba ote dagoen bertan. Baina ondo dakidana da Ospitalean lanean dabiltzan pertsonak badaikitela beren lana egiten eta, batez ere, gaixoekin tratatzen. Nire esperientziari buruz hitz egiten dut: zaindua eta

mimatua sentitu naizela esan nahi dut.

Ospitaleko langile askori eskerrak eman nizekion, hori egiteko aukera izan nuenean, baina hemen, gure bailarako egunkarian ere esan nahi dut: mila esker, Ospitaleko langile guztioi, jasotako tratua eta mimoengatik. Asko laguntzen dute osatzen! Eta segi horrela, ederto egiten duzue-eta.

BEGO ERRASTI GARAITONANDIA
Debagoiena

Hizkuntza Eskubideen Eguna

Euskal Herrian Euskaraz elkarrekin datorren apirilaren 4an Hizkuntza Eskubideen Eguna antolatu du Lesakan. Lehen aldia da nazio mailan hizkuntza eskubideen aldeko egun bat antolatzen dena.

Jakina da Euskal Herrian euskaldunoi hizkuntza eskubideak sistematikoki urratzen zaizkigula. Lurralde bereizkeriarik gabe ezin dugu gure herrian gure hizkuntzan bizi eta, gainera, azken urtetan euskararen eta normalizazioaren aurka estatuak darabilten suntsipen estrategia egoera hori larriagotzen ari da. Baina egiturazko egoera da muga argiak ezartzen dizkiguna: euskarazko status legal bakarra ez izatea, ofizialtasunik eza eta lurralde osorako hizkuntza politika bakarra ez izateak eragin kaltegarria dakar gure hizkuntzaren garapenerako.

Beraz, hizkuntza eskubideen aldeko indar biltzean ahalegindu eta hauek bermatuak izan daitezen eragin sozial tinkoagoa aktibatua izatea ezinbestekotzat hartzen dugu. Zentzu horretan antolatu dugu Hizkuntza Eskubideen Eguna. Helburua baita nazio osoko ahalik eta indar euskaltzale gehienak Lesakan biltzea, bai eragile eta talde ikuspegitik, eta zalantzarik gabe herritarren ikuspuntutik.

Horrexegatik, zure parte-hartzearen garrantzia azpimarratu nahi genuke. Bai erakunde gisa edo herritar gisa Lesakara hurbildu, hizkuntza eskubideen inguruan hausnarketetan parte hartu, aldarrikapena lau haizetara zabaldu eta une atsegin bat igarotzeko aukera ezin hobea izango delako. Beraz, horra hor gure deia.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Debagoiena

Datorren astean, eguaztenean

Eguaztenean banatuko dugu datorren astean GOIENKARIA, eta ez egubakoitzean, Aste Santuko oporrak direla-eta.

GOIENKARIA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereziabar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Irabxe Bengoa, Arantzazu Arana
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

ANTZUOLA

**Buztinzuri kalea
Aste Santurako
zabaltzea espero
du Udalak**

Udaleko arduradunek espero dute datorren astean, Aste Santua baino lehen, zabaltzea Buztinzuri kalea.

Aurrerantzean noranzko bakarria izango du orain zabalduko duten Buztinzuriko zati horrek. Oraingoz, goitik behera bakarrik ibili ahal izango gara automobilez, baina gero, behetik gorako noranzkoa izango du; kontua da Talleres Antzuola eta Telleriatarren eraikina eraberritzeko aldamiok jarri behar dituztela eta horrek oztopatu egiten duela behetik gorako bidea. /A.I.



IBAN ARANTZABAL

BERGARA

Hobekuntza lanak herrian eta zirkulazio aldaketak Itzulirako

Astelehenean Bergaran hasiko den Euskal Herriko Txirrindulari Itzulirako hainbat hobekuntza lan egin dituzte egunotan herri barruan. Bestalde, hainbat zirkulazio aldaketa eragingo ditu Itzuliak astelehenean: Bideberri eta Ibargarai bitartean autoak kendu egin beharko dira 08:00etarako eta 14:00etarako autobus geltoki pareko aparkalekua husteko ere eskatu dute. Antolatzaileek ahal den neurrian autorik ez erabiltzeko eta aukera izanez gero garajeak erabiltzeko eskatu dute. Ohikoa denez, Ertzaintzak zirkulazioa eten egingo du txirrindularien tropela igarotzen den bakoitzean. Asteleheneko etapa 17:15ak aldera amaituko da, Ibargarain. Astelehenean Zerrajeran eta Mayc lantegietan jaieguna dute eta ikastetxeetan ere jai daukate. /E.M.

ARAMAIO

**Miloi eta erdi euro
pasatxoko
aurrekontua onartu
dute 2004rako**

Aho batez onartu zuen udalbatzarrak aurrekontua: milioi eta erdi euro pasatxo. 478.000 euro pasatxo inbertsioak egiteko izango dira. Hala, inbertsio handiena auzoei oinarriko zerbitzuez hornitzeko egitasmoarekin segitzeko izango da. Arexola auzoko lanik handienak egingo dituzte: ura, gasifikazioa eta zoladura. Eguzkierripa auzoko lanak, berriz, datorren urterako utzi dituzte. Eta bestelako gastuen artean, Udalak 20.000 euro gorde ditu herriko jaietarako, eta 6.000 euro elkarteen artean banatzeko. /U.M.

ELGETA

**Mendi museoa
Domingo Iturbe
eraikinean jartzeko
asmoa dute**

Mendi museoa Elgetan ipintzeko asmoa aspaldikoa da, baina orain dela gutxi eskatu du Udalak proiektua egiteko. Laster, proiektua nola doan aztertuko duen talde bat elkartuko da. Museoa Domingo Iturbe eraikinean egitea da asmoa, baina horretarako berrikuntzak egin beharko dira. Eraikina Gotzaindegiarena bada ere, hark ez du inongo eragozpenik jarri museoa bertan ipintzeko. Lau solairu ditu eraikinak, eta, besteak beste, erakusketa gelak egongo dira bertan. /I.A.

OÑATI

**Nekazarien Elkartek 25
urte beteko ditu, eta
egitaraua antolatu du**

Mende laurdena beteko du aurtten Nekazarien Elkartek, eta hori ospatzeko, ekitaldiz betetako egitaraua antolatu du.

Antolatu dituen ekitaldi batzuk elkarteko bazkideendako izango dira, baina beste hainbat, oñatiar guztiendako. Esaterako, baserriarekin lotutako hitzaldiak egingo dira, elkartearen bertan, apirilean zehar. Gaur arratsaldean izan da lehenengoa. *Artzain mundua 1980tik gaur arte* izenburua duen hitzaldia egin du Eduardo Urartek. Apirilaren 16an, Fernando Otazuak *Basogintza eta zertifikazioa* gaiaren inguruan hitz egingo du, 19:30ean, eta 23an, ordu berean, Martxel Aizpurua etorriko da Nekazarien Elkartera, erlezaintzari buruz hitz egitera.

Hilabete honetan, argazki erakusketa jarriko dute elkartearen bertan, Iriondoren lanen artean, eta urtea amaitu arte egongo da ikusgai. Gainontzean,

urtero bezala, Herri Eguna antolatzen parte hartuko du elkarteak, moxal-jana izango dute azaroan, eta elkarte arteko mus txapelketa antolatu dute abendurako, besteak beste.

DUELA 25 URTE

1979ko urriaren 6an inauguratu zuten elkarteak, Errosario domeka bezperan. Lehen ere, feria egunean elkartzen ziren herriko baserritarrak, eta lokaletan egiten zituzten batzarrak. Baina elkarte baten beharra ikusi zuten. 60 baserritar elkartzea zen erronka, eta lortu zuten. Egun, 172 bazkide ditu/O.E.

Zertzelada

**Artzaintzari,
basogintzari eta erlezaintzari
buruzko hitzaldiak
egingo dira apirilean,
elkartearen bertan**

ARRASATE

**Udalak ez du onartu San
Josepe harrobiaren
ustiapena luzatzea**

Aurreikuspenen kontra, udalbatzarrak ez du onartu San Josepe harrobiari ustiapenarekin segitzeko baimena luzatzea. Joan den asteleheneko osoko bilkuran landu zuten zinegotziek gaia. Hala, EAJk izan ezik, gainerako alderdi politikoek harrobia ixtea eskatu zuten. Oro har, esan zuten harrobiak ez duela Udala-

rekin hitzartutakoa bete, ez duelako ingurua berreskuratu; Udalarekin hitzartutako ustiapen-muga gainditu egin duela eta auzotarraren eta zenbait lantegiren kexuak ere badirela. Hala, Aralarrek, EBk, EAk eta PSE-EEk luzapenaren kontra egin zuten, PP abstentitu egin zen eta EAJk, berriz, alde bozkatu zuten. /U.M.



U.M.

Apirilaren 27an bukatuko da harrobia ustiatzeko epea.

ARETXABALETAKO

**Batukada ikastaroa
antolatu du
Loramendi EEK
herritarrendako**

Batukada ikastaroa antolatu du Aretxabaletako Loramendi EEK. Helburua da Euskararen Egunean, maiatzaren 15ean, hain zuzen, herritarren parte-hartzea bultzatzea, eta denon artean egitea jai. Hori horrela, perkusio taldea osatu gura dute batukada jotzeko, eta hemendik maiatzaren 15era bitartean batukada eskolak emango ditu Martin Antxia aretxabaletarrak. Zapatuetan izango dira, 11:30ean, udaletxe zaharrean, eta antolatzaileen esanetan ez dago inolako baldintzarik parte hartzeko. /M.A.

ESKORIATZA

**Eguneko zentroak
zazpi erabiltzaile
ditu martxoaren
8a ezker**

Eskoriatzan eguneko zentroa ireki zuten martxoaren 8an. Zazpi pertsona daude bertan, baina guztira 15 pertsonarentzako tokia dago. Endekapenezko gaixotasuna duten adinduei errehabilitazio zaintza eskaintzen diete Mercedeko Ama egoitzan; bizi kalitate hobea eskaini gura diete. 09:00etan irekitzen dituzte ateak, 18:00ak arte. Gosaria, bazkaria eta askaria ematen dizkiete erabiltzaileei. Horrez gain, eguneko zentroan, oroi-mena landu eta eskulanak eta errehabilitazioa egiteko aukera dute. /Z.V.M.

GATZAGA

**Batzarra egingo
dute apirilaren 6an,
ekimen kulturalak
antolatzeko**

Osoko bilkura egin zuten Gatzagan hilaren 25ean, eta askotariko gaiak landu zituzten bertan. Horiatariko bat, herrian ekintza kulturalak antolatzea. Jende gutxi gerturatu zen, hala ere, udaletxera. Horregatik, beste bilera baterako dei egin gura diete herriko gazteei, apirilaren 6an, martitzena. 18:30ean izango da hitzordua, eta bertan, herriko jaiak antolatuko dituzte, besteak beste. Andramari jaietarako rock kontzerturen bat antolatu gura dutela adierazi du kultura zinegotziak. /Z.V.M.

Podiuma

Kirolabur

Jon Odriozola | TXIRRINDULARIA |

OIHANA ELORZA

Kelme taldean ari da urtarrila ezker Jon Odriozola txirrindulari oñatiarra. Azken egunetako iskanbilak direla medio, egutegia aldatu egin behar izan du, baina lanerako gogoz dago. Astelehenean, Bergaran izango da, Euskal Herriko Itzulieren lehen etapan.

Zein ondorio izan dute zugan azkenaldiko iskanbilek?

Tourrari begira egin dut egutegia, eta orain, aldatu egin behar ko dut. Oraindik ez gaude ziur Tourrean izango garen edo ez, baina gai honek hartu duen itxura ikusita, beste lasterketa batzuk izan beharko ditugu orain buruan, ez dakit zer gertatuko den. Ziurrenik, Italiako Giroa korrituko dut. Horixe izango da Kelme taldearen hitzordu garrantzitsuenetakoa.

Zuk, ordea, Tourra zenuen buruan, ezta?

Noski, beste edozein txirrindulari profesional bezala. Lau aldiz izan naiz Tourrean, eta beti taldekideei laguntzen ibili naiz. Oso gustura, hala ere, baina beti besteei laguntzen. Aurretik, ordea, nik neuk zerbait egiteko aukera ikusten nuen, hori prestatzen hasi naiz, horixe nuen buruan, eta orain, bertan behera ikusten dut guztia. Gogorra da orain planteamendu berria egitea eta guztiari buelta ematea. Baina ez dago besterik. Nik neuk ez dut ezeren errurik, pena bakarrik, pena handia.

Talde gisa jarraitzeko ere arazoak izan zituen Kelme. Orain, berriz, Manzanoren adierazpenak. Zerk baldintzatu ditu Tourreko antolatzailak?

Azken iskanbila honek, dudarik gabe. Tourreko gonbidapena bazuen taldeak, kirol talde han-



OIHANA ELORZA

Euskal Herriko Itzulian izango da Jon.

“Cofidis taldean ere izan dira arazoak, baina badoa Frantziako Tourrera. Guk moldatu egin beharko dugu egutegia”

dia dela erakutsi du eta gauzak ondo egin ditu. Paper batzuk tramitatzea baino ez zen falta Tourreko txartela erabat lortzeko, eta azken iskanbila hauekin, paper horiek ez betetzea erabaki dute antolatzailak, besterik ez. Tramitazio guztia bukatuta balego,

ez zen ezer gertatuko. Cofidis taldean ere izan dira arazoak, eta talde hori badoa Tourrera.

Gorputzaldi txarrekin hasiko duzu Euskal Herriko Itzulia?

Ez, ez. Gogoz hasi eta gogoz bukatu nahi dut. Egia da orain

arte nahiko lasai ibili naizela. Tourra eta Espainiako Itzulia ziren helburuak, eta beraz, lasterketa hauek ez ditugu behar bezala prestatu, ez irabazteko adina, behintzat.

Aztertu dituzu ibilbideak?

Bai, jakina. Lazkaora joan naiz astean, erlojupekoaren ibilbidea ikustera. Goizekoa izango da gogorra, Lazkaomendiko igotera. Baita Lekunberrikoa ere, Azpiroz mendatea.

Lehenengo etapa, berriz, urtean izan da nire entrenamenduko ibilaldia. Makina bat aldiz igo ditut Deskarga, Elosu eta Asentzio. Ondo ezagutzen dut, baina auskalo.

Kontuz, ibilbideko bidezuloak konpondu egin dituzte-eta.

Egia. (Barre). Bidezuloekin entrenatu gara orain arte, eta Itzuliaren ibilbidea ez dugu ezagutuko. Lazkaon ere konpondu egin dute errepidea, baita Bergaran ere.

Nortzuk ikusten dituzu lehen postuetan?

Mayo eta Vinokourov ondo ibiliko direla uste dut. Valverde taldekidea ere oso ondo dabil, gogor hasi du denboraldia, baina azken iskanbila hauek pisu handia dute guztiongan, entrenamenduak ere ez ditugu berdindu egin, eta ez dakit nola erantzun- go duen Valverdek. Eta noski, beti daude sorpresak.

Bestetik, Euskaltel Euskadi taldea indartsu ibiliko dela uste dut. David Etxebarria, Samuel Sanchez eta beste guztiak. Talde horrek lan ona egingo du.

Zorte on, Jon. Bide bazterrean izango gara, animatzen.

Eskerririk asko. Italian egon nintzenean, hango txirrindulariek esaten zidaten beti joaten zirela euskaldunak zeuden alde- ra, freskagarriak eman eta benetan animatzen zituztelako.

DOKEA/ARRASATE

Doke Txapelketa jokatu da etzi, domekan, Arrasaten. Monterrongo parkean izango da, goizeko hamaiketan. Berez, gaztetxoendako txapelketa izango da, hain zuzen ere, 7 eta 15 urte bitartekoendako. SUDC elkarteak antolatuta du, hogeigarren aldiz. Bestalde, Egubakoitz Santu egunean, elkarte arteko Doke Txapelketa egingo da Monterronen bertan, Arrasaten.

TRIALSINA/OÑATI

Euskal Herriko Trialsin Txapelketako lehenengo proba jokatu da domekan, 10:30ean, Arantzazun. Hainbat mailatako lehiakideek hartuko dute parte, gazte mailatik hasi eta elite mailaraino. Munduko txapelduna izandakoak ere hartuko du parte. Euskal Herri osotik etorriko dira, eta lehiakideen artean, bi oñatiar ibiliko dira: Ander Romero eta Beñat Ugarte.

ESKUBALOIA/OÑATI

Oñatiko Arrikruz Kobak Eskubaloia taldeak eutsi egin dio Espainiako lehen mailari. Nahiko denboraldi kaskarra egin du, emaitzei begiratuta, behintzat, eta azken aurreko partidua jokatu arte ez du jakin mailari eutsiko zion edo ez. Zapatuan, 19:00etan, denboraldiko azken partidua jokatu du, Oñatin, Zumaiaiko Pulpo taldearen aurka. Galdu edo irabazi, datorren denboraldian ere Espainiako lehen mailan jokatu du.

ESKUBALOIA/BERGARA

Bergarako kiroldegian, Labe- garaieta auzoan, lagun arteko eskubaloia partidua jokatu dituzte zapatu goizean, Oñatiko, Arrasateko eta Bergarako talde- ek. 10:00etan hasiko da jokoa, eta lehenengo partidua Oñatik eta Arrasateko jokatu dute elkar- ren aurka. Galtzen duenak Bergararen aurka jokatu du, eta irabazten duenak ere bai. Gazteak dira parte-hartzaileak, mutilak.



Aretxabaletan... Residencial Beroa

Zure etxe berria **Residencial Beroan** aurkituko duzu.

Etxebizitzak, apartamentuak, atikoak, duplexak,

zure neurria. Zure familiaren neurria.

1, 2, 3 edo 4 logelakoak. Oraindik ere aukera dezakezu!

Informa zaitetz Aretxabaletako bulegoan.

Belorrieta Auzoa, 13 (obren aurrean). Tel. 943 711 770



Euskal Okela, Eusko Labela duen bakarra

Soilik Harategi hauetan
Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.
Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14

ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1

BERGARA
ANDRES MUJICA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12

ESKORIATZA
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11

OÑATI
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

EUSKO LABELA DUEN BAKARRA

Euskal Herrian dauden haragi mota eta marka desberdinen artean Euskal Okela bereizten da. Ez dago besterik hau bezain zorrotza denik, 90 parametro baino gehiago kontrolatzen baititu.

Berau da bakarra Euskal Herritik kanpo jaiotako animaliak onartzen ez dituen, eta modu naturalean eta jaki nobleekin soilik elikatzea behartzen duena. Hasieratik amaierara prozesu osoa kontrolatuz

Benetakotasun Etiketa


36eta50
artekoneurriak

Neskaetamutilendakogaztemoda

Ferrerias kalea 28 / 943 77 12 54 / ARRASATE

EUSKAL HERRIKO ITZULIA

Egubakoitza / 2004ko apirilaren 2a / GOIENKARIAren gehigarri berezia



BERGARAN HASIKO DA ITZULIA ASTELEHENEAN, APIRILAK 5

Argazkian, Iban Mayo, iazko Itzuliko irabazlea.

AZALA: IMANOL SORIANO / ARGAZKIA: ARGAZKI PRESS




IKERLEKU
PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak

Azterketa biomekanikoa

Kirol podologia

Neurrira egindako plantillak

Ikerleku zeharbidea BERGARA 943 76 07 84

ITZULIA, EGUNEZ EGUN

Itzuli gogorra: 765 kilometroan, 28 mendate

AINZANE IRIZAR

Bereziki gogorra izango da aurtengo Euskal Herriko Itzulia. 764,5 kilometro eta 28 mendate gainditu beharko dituzte txirrindulariek. Astelehenean Bergaran hasi eta egubakoitzean Lazkaon amaituko da Itzulia.

Martxoaren 23an aurkeztu zuten Donostian Itzuliaren 44. aldi hau. Honako hauek parte hartu zuten: Gipuzkoako Txirrindularitza

Federazioko presidente Jose Luis Arrietak; Euskal Herriko Txirrindularitza Federazioko presidente Victor Garcia de Andoinek; Industria, Merkataritza eta Turismo sailburu Ana Agirrek; Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Gipuzkoako diputatu

Nahikoa da etapan profila begiratzea ikuskizun polita eskainiko digutela ohartzeko

Fernando Tapiak; eta DV Kirol Antolakuntzako koordinatzaile nagusi Jaime Ugartek.


Debagoieneko ordezkariak ere egon ziren: Andoni Gartzia Oñatiko alkatea eta Joseba Agirre eta Ernesto Murgiondo zinegotziak eta Bergarako etaparen antolatzaileak, besteak beste.

MENDATEAK PROTAGONISTA

Euskal Herria menditsua eta aldapatsua da, eta horrelako ingurunean normala den moduan, aldapatsua izango da Itzulia ere. 764,5 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek, guztira, eta 28


ITZULIA DEBAGOIENEAN

1. etapa / Apirilaren 5a, astelehena BERGARA-BERGARA / 139 km



31. km	14:29	68. km	15:22	88. km	15:50	131. km	16:52
Bergara (S. Martin pl.)	0 km 13:45	Deskarga gaina	88 km 15:50	Udana gaina	100 km 16:07	Oñati	106 km 16:16
Maltzaga	9 km 13:57	Elorregi	114 km 16:27	Bergara (helmugatik)	121 km 16:37	Angiozar	127 km 16:46
Deba	25 km 14:20	Bergara (helmugatik)	121 km 16:37	Asentzio gaina	131 km 16:52	Elgeta	132 km 16:53
Itziar gaina	31 km 14:29	Antzuola	85 km 15:46	Bergara	139 km 17:03		
Arroa	41 km 14:43						
Azpeitia	52 km 14:59						
Elosu gaina	68 km 15:22						
Bergara (helmugatik)	77 km 15:35						

2. etapa / Apirilaren 6a, martitzena BERGARA-ZALLA / 178 km



25. km	13:20	61. km	14:12	82. km	14:42	101. km	15:09	117. km	15:32	141. km	16:06
Bergara (S. Martin pl.)	0 km 12:45	Humaran gaina	101 km 15:09	Balmaseda	123 km 15:40	Herrera gaina	127 km 15:46	Zalla	129 km 15:49	Avellaneda gaina	134 km 15:57
Arrasate (saihesbid.)	9 km 12:57	Zalla	129 km 15:49	Herrera gaina	151 km 16:20	Zalla	153 km 16:23	Herrera gaina	176 km 16:56	Zalla	178 km 16:59
Aramaio	16 km 13:07	Oleta	29 km 13:26	Zalla	153 km 16:23						
Kurtzeta gaina	25 km 13:20	Igorre	30 km 13:56								
Oleta	29 km 13:26	Bikoitzgane gaina	61 km 14:12								
Otxandio	31 km 13:29	Laudio	77 km 14:35								



ARGAZKI PRESS

Bergaran hasi eta bukatuko den etapan, lau mendate gainditu beharko dituzte txirrindulariek.

sustatu.com

interneteko profesional euskaldunendako albistegia

<http://www.sustatu.com>



mendate gainditu beharko dituzte. Horietako bi mendate, gainera, lehen mailakoak izango dira: Urduñako eta Azpirozko mendateak, hain justu ere.

Etapen profilei begiratu besterik ez dago txirrindulariek ikusizun paregabea eskainiko digutela ohartzeko.


FABORITOAK, ASKO

Ez da lan erraza faboritoen gainean berba egitea. Hala ere, aurreko aldiko emaitzak kontuan hartuta, hor ditugu Euskaltel-Euskadiko Iban Mayo, Haimar Zubeldia eta David Etxebarria, esaterako. Vinokourov, Alejandro Valverde, Tyler Hamilton, Mercado, Aitor Osa, Ivan Basso, Zberg, Boigt, Rebellin eta Di Lucaren izenak ere han eta hemen entzuten ditugu. Onena, baina, egubakoitzera arte itxoi-tea izango dugu.

SARITAN, 82.770 EURO


Antolatzaileek aditzera eman dutenez, 82.770 euro banatuko dituzte, guztira, saritan. Itzuliaren irabazleak 5.770 euro irabaziko ditu; etapa bakoitzaren irabazleak, 2.161 euro; erregularatunaren saria 300 euro izango da; baita mendiko eta tarteko helmugena ere. Lehenengo euskal txirrindulariak 300 eramango ditu etxera. Eta, azkenik, talde-rik onenak, 600 euro.

3. etapa: ZALLA-GASTEIZ / 169 km / Apirilaren 7a




Aurreko etaparekin alderatuta —9 mendate ditu martitzenekoak—, ibilbide lasaiagoa izango dute txirrindulariek. Hala ere, hirugarren etapa honetan, Itzuliaren lehen mailako bi mendateetako bat gainditu beharko dute txirrindulariek: Urduñako, hain zuzen ere.

4. etapa: GASTEIZ-LEKUNBERRI / 182 km / Apirilaren 8a




Sei mendate nahiko gogorrek gainditu beharko dituzte Gasteiztik Lekunberrira bidean. Helmugarako hiruzpalau kilometro gelditzen direnean, gainera, lehen mailako Azpirotz mendatea izango dute, eta badirudi horrexek erabakiko duela eguneko lasterketa.

5. etapa (1. zatia): LEKUNBERRI-LAZKAO / 88 km / Apir. 9a



Egubakoitzeko goizeko lasterketak ere mendateak izango ditu protagonista: bost, guztira. Horietako bi, gainera, Gaintzako eta Lazkaomendikoa, azkeneko hamaika kilometroen barruan aurkituko dituzte txirrindulariek.

5. etapa (2. zatia): LAZKAO-LAZKAO / 8,5 km / Apirilaren 9a



Laburra izango da erlojupeko proba, laburregia, diferentziak egiteko. Nahiko laua izango da, gainera, ibilbidea; mendate bakarra izango dute txirrindulariek erlojuaren kontrako ibilbidean: Olaberriako gaina, hain zuzen ere.

PARTE-HARTZAILEAK

Txirrindularien zerrenda hau behin-behinekoa da. Domeka arratsaldera arte ez da jakingo behin-betiko zerrenda.

EUSKALTEL-EUSKADI Zuzendaria: Julian Gorospe 1. Mayo, Iban 2. Sanchez, Samuel 3. Zubeldia, Haimar 4. Etxebarria, David 5. Gonzalez, Gorka 6. Camaño, Iker 7. Etxebarria, Unai 8. Flores, Iker	QUICK STEP-DAVIT. Zuzendaria: Serge Parsani 31. Virenque, Richard 32. Dufaux, Laurent 33. Mercado, Juan Miguel 34. Pecharroman, Jose A. 35. Van Goolen, Jurgen 36. Garrido, Jose Antonio 37. Rogers, Michael 38. Sinkewitz, Patrik	I. BALEARS-BANESTO Zuzendaria: Eusebio Zunue 61. Osa, Aitor 52. Osa, Unai 63. Menchov, Denis 64. Colom, Antonio 65. Arrieta, Jose Luis 66. Pradera, Mikel 67. Zandio, Xabier 68. Reynes, Vicente	RABOBANK Zuzendaria: Erik Breukink 91. Boogerd, Michael 92. Leipheimer, Levi 93. Rasmussen, Michael 94. De Groot, Bram 95. Niermann, Grisca 96. Veneberg, Thorwald 97. Mtsaars, Ronald 98. De Weert, Kevin	TEAM CSC Zuzendaria: Johnny Weltz 121. Basso, Ivan 122. Julich, Bobby 123. Luttenberger, Peter 124. Sorensen, Nicki 125. Sastre, Carlos 126. Voigt, Jens 127. Arvensen, Kurt-Asle 128. Calvente, Manuel	KELME-COSTA BL. Zuzendaria: Vicente Belda 151. Valverde, Alejandro 152. Latasa, David 153. Odriozola, Jon 154. Zarate, Carlos 155. Garcia Quesada, Adolfo 156. Garcia Quesada, Carlos 157. Julia, Jose Cayetano 158. Cuenca, Juan Miguel	C.ALMERIA-PATERN. Zuzendaria: Miguel Moreno 181. Del Rio, Jon 182. Ormaetxea, Jokin 183. Elgezabal, Mikel 184. Euba, Lander 185. Gonzalez, Jonathan 186. Diaz Lobato, Pedro 187. Herrero, David 188. Lara, Francisco Jose
PHONAK Zuzendaria: Alvaro Pino 11. Hamilton, Tyler 12. Zulle, Alex 13. Bayarri, Gonzalo 14. Gutierrez, Jose Enrique 15. Moos, Alexandre 16. Aebersold, Niki 17. Pereiro, Oscar 18. Schneider, Daniel	T-MOBILE TEAM Zuzendaria: Frans Van Looy 41. Vinokourov, Alexandre 42. Botero, Santiago 43. Kloden, Andreas 44. Savoldelli, Paolo 45. Evans, Cadel 46. Guerini, Giuseppe 47. Hiekmann, Torsten 48. Kessler, Matthias	GEROLSTEINER Zuzendaria: Raimund Dietzer 71. Rebellin, Davide 72. Totschnig, Georg 73. Faresin, Gianni 74. Zberg, Beat 75. Hardter, Uwe 76. Montgomery, Sven 77. Wegmann, Fabian 78. Ziegler, Thomas	LIBERTY SEGUROS Zuzendaria: Manolo Saiz 101. Heras, Roberto 102. Glez de Galdeano, Igor 103. Nozal, Isidro 104. Serrano, Marcos A. 105. Vicioso, Angel 106. Gil, Koldo 107. Glez de Galdeano, Alvaro 108. Caruso, Giampaolo	LAMPRE Zuzend.: Fabrizio Bontempi 131. Casagrande, Francesco 132. Garate, Juan Manuel 133. Vila, Francisco Javier 134. Bertoletti, Simone 135. Righi, Daniele 136. Pinotti, Marco 137. Piccoli, Mariano 138. Scotto, Michele	SAUNIER DUVAL-PR. Zuzendaria: Matxin Fernandez 161. Dominguez, Juan Carlos 162. Martin Perdiguer, M.A. 163. Casero, Rafael 164. Zaballa, Constantino 165. Ventoso, Francisco J. 166. Gomis, Juan 167. Canada, David 168. De la Fuente, David	CAFES BAQUE Zuz.: Jon Zengotitabengoa 191. Cardenas, Felix 192. Buenahora, Hernan 193. Arreiturandia, Pello 194. Gutierrez, Francisco 195. Gutierrez, Efrain 196. Hierro, Alberto 197. Lopez, David 198. Serrano, Ricardo
FASA BORTOLO Zuzendaria: Alberto Volpi 21. Gonzalez, Aitor 22. Larsson, Gustav Erik 23. Codol, Massimo 24. Danielson, Tom 25. Gustov, Volodymir 26. Bruseghin, Marzio 27. Cioni, Dario David 28. De Los Angeles, Juan J.	SAECO Zuz.: Giuseppe Martinelli 51. Di Luca, Danilo 52. Simoni, Gilberto 53. Petrov, Evgeni 54. Bertagnolli, Leonardo 55. Cunego, Damiano 56. Fuentes, Juan 57. Glomser, Gerrit 58. Spezialetti, Alessandro	COFIDIS Zuzendaria: Bernard Quiften 81. Astarloa, Igor 82. Millar, David 83. Perez, Luis 84. Fofonov, Dimitry 85. Cuesta, Inigo 86. Fernandez, Bingen 87. Atienza, Daniel 88. Bessy, Frederic	US POSTAL Zuzendaria: Johan Bruyneel 111. Azevedo, Jose 112. Beltran, Manuel 113. Peña, Victor Hugo 114. Rubiera, Jose Luis 115. Barry, Michael 116. Landis, Floyd 117. Noval, Benjamin 118. Zabriskie, David	CH. WINCORNIXDORF Zuzend.: Walter Planckaert 141. Bruylants, Dave 142. Aranaga, Andoni 143. Ardilla, Mauricio 144. Brard, Florent 145. Kostyuk, Denys 146. Piatek, Zbigniew 147. Verheyen, Geert 148. Zamana, Cezary	RELAX-BODYSOL Zuzend.: Jesus Suarez Cuevas 171. Martinez, Alberto 172. Blanco, Santiago 173. Mayo, Iban 174. Cesar, Gustavo 175. Dueñas, Moises 176. Guerra, Hector 177. Burgos, Nacor 178. Scheuneman, Niels	LA BOULANGERE Zuzend.: Christophe Faudot 201. Beloki, Joseba 202. Chavanel, Sylvain 203. Lefevre, Laurent 204. Pineau, Jerome 205. Charreau, Anthony 206. Sprick, Matthieu 207. Beloki, Gorka 208. Yus, Unai

caravanas oñate

HELVIDE BERRIA: Obispo Otaduy 25 OÑATI
(Citroen auto kontsezonarioaren atzean)
Tel.: 943 780565 - Faxa.: 943 716091

■ ITZULIA BERGARAN HASIKO DA, ASTELEHENEAN, APIRILAREN 5EAN

Bergarako etapan, ehun bat herritar ibiliko dira lanean

AINTZANE IRIZAR

Debagoiendarrok Itzulia eta txirrindulariak bertatik bertara ikusteko aukera izango dugu. Bergaran hasiko da lasterketa eta ibarreko hainbat mendate eta herritatik igaroko dira ziklistak.

Astelehenean, apirilaren 5ean, hasiko da Itzulia Bergaran. Baina domekarako, denok igarriko dugu ohikoa baino mugimendu handiagoa. Izan ere, domekan jarriko dituzte helmuga, hesiak, plazako taula, eta abar. Gainera, antolatzaileek bulegoa jarriko dute Miguel Altuna institutuan, eta domekan ere zabalduko dute.

SAN MARTIN PLAZA ETA IBARGARAI

Herriko bi gune horiek izango dira lasterketaren gune nagusiak. Plazan hasiko da lasterketa, astelehenean, 13:45ean, baina aurretik ere ekitaldi bat baino gehiago egongo da. Hantxe jarriko dute taula eta parte hartuko duten talde guztien aurkezpenak egingo dituzte. Lasterketa hasi baino ordu bate lehenago izango da hori. Horren ondoren, txirrindulariek banan-banan sinatu beharko dute kontrolako postuan. Bigarren etapa ere plazan hasiko da, martitzenean, 12:45ean.

Amaitu, berriz, Ibargarai kalean amaituko da lehendabiziko etapa, 17:00ak aldera. Ibargarai 12 zenbakiaren parean gutxi gorabehera jarriko dute helmuga.

BERGARAKO ANTOLATZAILEAK

Euskal Herriko Itzuliaren antolatzaile nagusia DV den arren, herriko txirrindularitza-zale talde batek ere urtebete baino gehiago dihardu lanean. Batzorde bat osatu zuten orain dela urtebete,



Itzuliaren aurkezpenean egon ziren Bergarako batzordeko kide batzuk.

MIKEL LARRAÑAGA / ANTOLAKETA BATZORDEKO KIDEA

“Egia esan, lagun talde batek zirikatuta sortu zitzaigun Itzulia Bergaran hasteko ideia”

Mikel Larrañaga buru-belarri ibili da, eta dabil, Bergarako etapa antolatzeko, batzorde bat osatu zuten orain dela urtebete inguru, eta Mikel da batzorde horretako kideetako bat.

Zela sortu zitzaizuen Euskal Herriko Itzulia Bergaran hasteko aukera?

Egia esan, lagun talde batek zirikatuta sortu zen ideia. Hasiera baten, ez genuen serio hartu, baina, azkenean, animatu eta lanean hasi ginen.

Zergatik erabaki zenuten Itzuliaren hasiera eskatzea?

Euskal Herriko Itzulia, normalean, Gipuzkoan hasi eta Gipuzkoan amaitzen da. Hortaz, bi aukera horiek genituen. Bukera antolatzea, alde batetik, garestiagoa da, eta bestetik, konplikatuagoa ere bai, azken etapak bi sektore izaten dituelako. Hortaz, hasiera eskatzea erabaki genuen.

Hortaz, hasieran ideia hutsa zena bideragarria zela ikusi zenuten?

Bai; DVkoekin berba egin genuen eta pozik hartu zuten proposamena. Gero, Udalarengana jo genuen, dirulaguntza eske, eta eurek ere ondo hartu zuten. Esan beharra dago Udalak laguntzarik eman ez baligu, seguruenen, bertan behera laga behar izango

eta zortzi lagun ibili dira lanean. Astelehenean, baina, jende gehiagoren laguntza beharko dute: ehun bat bergarar ibiliko dira.

Bestalde, aipatzekoa da datu bat: herri bakoitzeko antolatzaile taldeez gain, 1.200 lagun mugitzen ditu Euskal Herriko Itzuliak. Kopuru horretan sartzen dira, besteak beste, txirrindulariak eurak, taldeetako zuzendari, mekaniko eta bestelakoak, muntatzaileak, antolatzaileak, motozaleak, epaileak, eta abar.

BERGARAKOAK, 42.000 EURO

Bergarako etapa antolatzaileak 42.000 euro inguruko aurrekontua dauka. Aurrekontuaren %60 Bergarako Udalak finantzatu du; gainerakoa, berriz, herriko batzorde antolatzaileak lortu behar izan du. Horretarako,

DVko antolatzaileek hainbat publizitate tarte eskaini diete, eta batzordeko kideek tarte horiek saldu behar izan dituzte. Herriko 70 bat komertzio, enpresa eta dendak egin du publizitatea eta Bergarako etapa antolatzeko lagundu.

ANTOLATZAILEAK, BERTAKO HOTELETAN

Itzulian parte hartuko duten txirrindulariek ez dute hartuko ostatu Bergarako hoteletan. Izan ere, toki handiak behar izaten dituzte automobilak eta kamioiak aparkatzeko; gainera, urte osorako kontratuak eginga izaten dituzte hotel handiekin, eta hara joango dira; batzuk Elorrio aldean egongo dira, beste batzuk Goierriko hoteletan... Antolatzaileak, baina, Bergarako bertako hoteletan egongo dira domekatik martitzenera.



GOIENKARIA

Mikel Larrañaga, batzordeko kide bat.

genuela ideia hura. Guk bakarrik ezin izango genuen aurrera egin.

Antolaketa lanetarako batzorde bat osatu zenuten.

Halaxe da; orain dela urtebete inguru sortu genuen batzordea, eta ordutik hona, zortzi lagunek dihardugu lanean. Batzuk Lokatza ziklismo eskolako kideak gara; beste batzuk, berriz, txirrindularitza-zaleak, guk antolatzen ditugun lasterketetan laguntzen digutenak.

Zein izan da batzorde horren lana?

DVko antolatzaileekin batzarrak egin; Udalarekin harremanetan egon; informazioa batu; azpiegitura guztiez arduratu. Izan ere, lan handia dago.

orain
Debagoiena
esku-eskura

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

Nork irabaziko du lasterketa?

Egubakoitz arratsaldera arte ezin izango diogu galdera horri erantzun, baina, beti egoten dira favoritoak. Txirrindularitzarekin zelabaiteko lotura duten sei debagoiendarrekin egon gara, eta podiuma iragartzeko eskatu diegu. Vinokourov ia denen iragarpenetan azaltzen da. Zerbaitegatik izango da, ezta? Bestalde, Itzuliaren gaineko iritzia ere eskatu diegu.



GOIENKARIA

JOSEBA LEZETA / KAZETARIA

Aurtengo Itzuliaren ibilbidea Abeste urte batzuetakoaren antzerakoa dela iruditzen zait, baina badauzka puntu batzuk oso erabakigarriak izango direnak. Hain zuzen ere, Asentzioko gaina, Azpirozkoa eta Lazkaomendikoa helmugatik oso gertu daude. Edozelan ere, nik uste dut erlojupeko lasterketara alde txikiekin iritsiko direla txirrindulariak.



GOIENKARIA

GURUTZE ALTUNA / TXIRRINDULARIA

Itzuliak betiko antzerako profilak dituela iruditzen zait. Hori bai, erlojupeko lasterketa, Lazkaokoa, oso laua da, ez erlojupeko igoera, beste urte batzuetan bezala. Bestalde, igoeran bukatzen den etaparen baten falta sumatzen dut. Era horretako etapak oso politak izaten dira. Euskaltel-Euskadik oso talde indartsua dauka, eta espero dut ondo ibiliko direla.



GOIENKARIA

MIKEL LIZARRALDE / TXIRRINDULARI OHIA

Beti bezala, lasterketa gogorra antolatatu dute aurten ere Itzuliaren arduradunek. Dena dela, eguraldiak ere zerikusi handia izango du; txirrindulari bakoitzari ezberdin eragiten dio eguraldiak. Denak dira etapa erabakigarriak, baina, nire ustez, hirugarrena, Gasteizen amaituko dena, nahiko gogorra izango da. Lekunberrikoa ere arriskutsua izango da.



GOIENKARIA

ANARTZ AGIRRE / KAZETARIA

Itzuli polita, ibilbide erakargarria latondu dute aurtengoan ere. Favoritoak dezente: Vinokourov, Boogerd, Basso, Valverde, Etxebarria, Mayo, Hamilton... Lehen etapan, Asentzioko mendateak aurreneko galbahe lana egingo du. Laugarrenean, Azpirotzek gauzak argi ditzake, baina Itzulia azken etapara arte ez da erabakiko. Argi Lazkaomendiko aldatsarekin.



GOIENKARIA

MANOLO ZUBILLAGA / UDA-KO TXIRRIND. SAILEKOA

Aurtengo Itzulia nahiko gogorra iruditzen zait, mendate asko dago. Laugarren etapa, Gasteiz eta Lekunberri artekoa, izango da denetan gogorrena. Gainera, kontuan hartu behar da txirrindulariak laugarren egunerako nekatuta ere egongo direla. Parte-hartzea, berriz, zoragarria; Itzulia maila goreneko lasterketa da eta txirrindulariek duten dena emango dute.



GOIENKARIA

ANTTON ELORTZA / ANTOLATZAILEA

Euskal Herriko Itzulia beti izaten da gogorra; dena dela, txirrindulariek eurek egiten dituzte lasterketak gogorak edo ez hain gogorak. Aurten arrazoi nahikoa badago ikuskizunerako, 28 mendate daude-eta ibilbidean. Lazkaon amaitzen den etapa kontuz ibiltzekoa dela uste dut; baita bigarren etapa ere. Erlojupekoa, berriz, ez da bestetan bezain teknikoa.

Kiniela

Joseba Lezeta

1. Alexandre Vinokourov 2. Iban Mayo 3. Ivan Basso

Gurutze Altuna

1. Iban Mayo 2. Alexandre Vinokourov 3. Alejandro Valverde

Mikel Lizarralde

1. Alejandro Valverde 2. Iban Mayo 3. Francesco Casagrande

Anartz Agirre

1. Alexandre Vinokourov 2. Iban Mayo 3. Alejandro Valverde

Manolo Zubillaga

1. Roberto Heras 2. Alexandre Vinokourov 3. Aitor Osa

Antton Elortza

1. Alexandre Vinokourov 2. Alejandro Valverde 3. Samuel Sanchez

Orain arteko irabazleak

Urtea	Irabazlea	1982	Jose Luis Laguia (Kat)
1924	Francis Pelissier (Fra)	1983	Julian Gorospe (EH)
1925	Auguste Verdjick (Bel)	1984	Sean Kelly (Irl)
1926	Nicolas Frantz (Lux)	1985	Ruiz-Cabestany (EH)
1927	Victor Fontan (Fra)	1986	Sean Kelly (Irl)
1928	Maurice Dewaele (Bel)	1987	Sean Kelly (Irl)
1929	Maurice Dewaele (Bel)	1988	Erik Breukink (Hol)
1930	Mariano Cañardo (EH)	1989	Stephen Roche (Irl)
1935	Gino Bartali (Ita)	1990	Julian Gorospe (EH)
1969	Jacques Anquetil (Fra)	1991	C. Chiappucci (Ita)
1970	L.P. Santamarina (EH)	1992	Tony Rominger (Sui)
1971	Luis Ocaña (Esp)	1993	Tony Rominger (Sui)
1972	Gonzalez-Linares (Esp)	1994	Tony Rominger (Sui)
1973	Luis Ocaña (Esp)	1995	Alex Zulle (Sui)
1974	Migel Mari Lasa (EH)	1996	F. Casagrande (Ita)
1975	Gonzalez-Linares (Esp)	1997	Alex Zulle (Sui)
1976	G. Baronchelli (Ita)	1998	Iñigo Cuesta (Esp)
1977	Gonzalez-Linares (Esp)	1999	Laurent Jalabert (Fra)
1978	Gonzalez-Linares (Esp)	2000	Andreas Klöden (Ale)
1979	G. Battaglin (Ita)	2001	R. Rumsas (Lit)
1980	Alberto Fernandez (Esp)	2002	Aitor Osa (EH)
1981	Silvano Contini (Ita)	2003	Iban Mayo (EH)



Ana
Etxeberria

Kirol masajista
Osteopata
Esku terapeuta
Linfodrenagista
Kiropraktikoa

■ ITZULIA DEBAGOIENEAN

Ibarreko herri gehienetan hasi edo bukatu da Itzulia

AINTZANE IRIZAR

Euskal Herriko Itzuliaren historian, behin baino gehiagotan hasi edo bukatu da lasterketa Debagoienez. Parte hartu duten txirrindulari debagoiendarrak ere asko izan dira. Aipatzekoa da, bestalde, Oñatin bukatuko dela 2005eko Itzulia.

Aurten sartuko da Bergara lehenengo aldiz Euskal Herriko Itzuliaren historian. Baina, 1924an Itzulia hasi zenetik, 21 etapa hasi edo bukatu dira Debagoienez.

LEHENENGOA, ARETXABAETA

Aretxabaeta izan zen Itzuliaren antolatzaileek aukeratu zuten ibarreko lehen herria. 1976an, Aretxabaetan bukatu zen laugarren etapa; Txomin Perurenak irabazi zuen. Hurrengo eguneko etapa ere Aretxabaetan hasi zen.

Hurrengo bi urteetan ere iritsi zen Itzulia Aretxabaletara. 1977an, gainera, hiru etapa antolatu zituzten. Bigarren etapa Altsasun hasi eta Aretxabaetan bukatu zen; hurrengo eguneko etapa, berriz, Agurainen hasi eta Aretxabaetan bukatzekoa zen, baina bertan behera laga zuten. Laugarren etapa Aretxabaetan hasi eta Soroluzen bukatu zen.

1978an, azkenik, Aretxabaetan bukatu zen Itzulia. Gasteizen hasi eta Aretxabaetan bukatu zen goizeko saioa Gonzalez Linaresek irabazi zuen, Itzuliaren irabazleak. Erlojupekoa, berriz, Untzillara egin zuten, eta Enrique Cima izan zen onena.

Hurrengo urtean ere etorri zitzaigun Itzulia ibarrera, Oñati, hain zuzen ere. Hantxe bukatu zen 1979ko Itzulia. Bermeo eta Oñati arteko etapa Isidro Juarezek irabazi zuen. Erlojupeko arra-



EL DIARIO VASCO

Oñatin hasi zen Itzulia 2000n eta hasiera ekitaldian, han zen Jon Odriozola; datorren urtean, berriz, Oñatin amaituko da Itzulia.

Aretxabaeta izan zen Euskal Herriko Itzulia antolatu zuen ibarreko lehenengo herria

Bi aldiz bukatu da Oñatin Itzulia; datorren urtekoa ere Oñatin bukatuko da

Herririk txikienek ere ezagutu dute Itzulia; 1997an Leintz Gatzagan amaitu zen

IBARREKO TXIRRINDULARIAK EUSKAL HERRIKO ITZULIAN

Jesus Arantzabal bergararra izan zen lehena; baita jemaizarik onenak lortu zituena ere. 1970ean eta 1971n hartu zuen parte, BIC taldearekin. 1970ean, bigarren geratu zen, Luis Pedro Santamarinaren atzetik. Garai hartakoa dugu Jose Inazio Askasibar elgetarra ere; La Casera taldearekin parte hartu zuen, 1970ean. Enrique Alonso mondragoetarrak ere emaitza onak lortu zituen: 1990ean mendiko saria irabazi zuen. Hona hemen Itzulian ibili diren gainerako debagoien-

darrak: Mikel Lizarralde oñatiarra (1984an, Orbea taldearekin); Asier Guenetxea (1994an, Artiach), Joxemi Elizburu (1998an eta 1999an, Estepona eta Fuenlabrada taldeekin) eta Iban Sastre (2000n eta 2001ean, Festinarekin) aretxabaletarrak. Jon Odriozola oñatiarrak, berriz, 1995ean parte hartu zuen lehen aldiz, eta aurten ere han izango dugu. Aipatzekoa da, bestalde, Fagor eta Zahor txirrindulari taldeek ere hainbat urtean parte hartu dutela Itzulian.

tsaldeko saioa, berriz, Oñatitik Arantzazura egin zuten, eta Battaglinek irabazi zuen, Itzuliaren aldi hartako txapeldunak.

1980an, berriz, Elosun bukatu zen erlojupeko etapa; Azkoititik Elosura egin zuten, hain justu. Teka taldeko Alberto Fernandezek irabazi zuen; hura izan zen Itzuliaren garailea ere.

Handik sei urtera iritsi zen Itzulia berriz Debagoienera. Antzuolan hasi zen; Antzuola-Antzuola izan zen lehendabiziko etapa, eta Maurizio Rossik irabazi zuen. Bigarren etapan, berriz, Antzuolatik Ibardinerako bidea egin zuten txirrindulariek.

1987an berriz bukatu zen Itzulia Oñatin. Oion eta Oñati arteko etapa Alberto Leanizbarriatik irabazi zuen; Arantzazurako erlojupekoa, berriz, Sean Kellyk, 1987ko irabazleak. Zarautzen hasi zen Itzulia urte hartan; datorren urtean ere halaxe izango da: Zarautzen hasi eta Oñatin bukatuko da Itzulia.

1991n Elgetan bukatu zen; Elorrio eta Elgeta artean jokatu zuten erlojupekoa. Johann Bruyneel izan zen onena.

Hiru urte geroago, 1994an, Arrasaten hasi zen lasterketa. Arrasaten hasi eta hantxe bukatu zen lehendabiziko etapa, eta Erik Dekker izan zen lehena helmugan. Hurrengo egunean, Arrasate Gasteizera joan ziren.

Herririk txikienek ere ez dituzte alde batera laga Itzuliak. 1997an Leintz Gatzagan amaitu zen. Bosgarren etapako goizeko lasterketa Arrasaten amaitu zen eta Zaniak irabazi zuen; erlojupekoa, berriz, Arrasate eta Leintz Gatzaga artekoa izan zen, eta Alex Zulle izan zen irabazlea.

Azkeneko aldiz 2000n etorri zen Itzulia Debagoienera. Oñatin hasi zen urte hartan. Oñati-Oñati lasterketan, Massimo Codol izan zen onena.

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Euskal Herriko Itzulia


Martitzenean, apirilaren 6an, 20:30ean



Ikustekoa!

EUSKAL
HERRIKO
ITZULIA
Babeslea:

MUEBLES FERNANDEZ



quattro® TRAKZIOA 4 motion®



Lau gurpileko trakzioarekin esperientzia ahaztezinak bizi izango dituzu.

Bihurgunez jositako errepide baten gidatzea sentsazio berezia izango da. Bihurgunean sartu orduko gurpilak errepidera itsasten direla igarriko duzu. Bihurgunetik irten eta azeleragailua zapaltzerakoan trakzioak automobila norabide egokian bultzatzen duela igarriko duzu. Ez dago irristadarik. Ez dago derrapatzerik. Egonkortasuna bikoiztu egiten dela igarriko duzu. Gainera, automatikoa denez, trakzioa zure gidatze-beharretara eta edozein errepidetara egokitzen da, eta berehala erantzuten du.

Ez zaitetz arduratu ezertaz ere.

Lau gurpileko trakzioa berme osoa da zuretako eta zurekin doazenendako.



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • Tel.: 943 71 18 70 • Faxe: 943 71 18 71



Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU



Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko apirilaren 2a

Kultura
eta
aisialdia



Apirilaren
2tik 9ra



Bost kategorian nagusietako irabazleak: *Sunday Tribune*, *La Voz de Galicia*, GOIENKARIA, *Heraldo de Aragón*, eta *Corriere della Sera* aldizkarietako ordezkariak.

Europak GOIENKARIA txalotu du

European Newspaper Award lehiaketak ondoen diseinatutako lekuko aldizkaria aitortu zuen

Lekuan lekuko euskal prentsak, GOIENKARIAren eskutik, ahaztu ezineko gaua bizi izan zuen domekan Vienan. Izan ere, European Newspaper Award sariketaren bosgarren edizioako bost sari nagusietariko bat irabazi zuen GOIENKARIAk, Europako ondoen diseinatutako tokiko aldizkari aitortzen zuena, alegia. Guztira, 400 bat lagun aurkeztu ziren lehiaketara. Goio Arana diseinuaren sortzaileak jaso zuen saria Europa osoko egunkarietako 300 lagunengatik, domekan.

TAMAINAZ TXIKI, KALITATEZ HANDI
“Zoratuta gauzka aurtengo lekuko prentsa saileko irabazleak. Dibertsitatea eta modernotasuna uztartzen ditu; konzeptu bisualak modu ereduagarrian ematen ditu aditzera; oso garbia da eta ezin hobeto antolatuta dago bere diseinua; hitz batean esanda, aldizkari aparta da”. Laudorio horiek jaso zituen GOIENKARIAk Johann Oberauer European Newspaper Award sariketako antolatzailetariko baten ahotik. Horrenbestez, iaz hasitako bidea borobildu du

GOIENKARIAk; iaz, izan ere, kategorian txikiago batean sari bat jaso zuen lehiaketa honetan. Tamainaz txikia den komunikabide batek erakutsi du handien artean egon daitekeela.

PRENTSA DISEINU KONGRESUA

Aurtengo podiuma honako beste lau medioekin konpartitu zuen Goio Aranak: erregio mailako aldizkarietan, *Heraldo de Aragón* (Espainia); erregiotik gorako egunkarien mailan, *Corriere della Sera* (Italia); astekariaren alorrean, *Sunday*

Tribune (Irlanda); eta epaimahaiaren aipamen berezia *La Voz de Galicia* espainiarrari egokitu zitzaion.

Antolatzaile bereen eskutik, astelehen eta martitzenean, hainbat diseinatzaile eta editorek Europako aldizkari onenak: euren konzeptu eta ideiak kongresuan esku hartu zuten; tartean, Goio Aranak egin zuen hitzaldia. Egitaraua osatzeko, parte hartzaile guztiondako hainbat ekintza antolatu zituzten: afari bat eta turismo irteera bat, besteak beste. /14
LEIRE KORTABARRIA



Jorge Uliarte euskal argentinarraren orkestra.



Sari banaketa ekitaldian, Estatuko hainbatekin.



Udaletxea. Han izan ziren ekitaldi guztiak.



Goio Arana, saria jasotzen.

KOMUNIKABIDEAK/ EUROPEAN NEWSPAPER AWARD SARIEN BOSGARREN EDIZIOA AUSTRIAN

Lekuko prentsan, eredu berritzailea

HERRIKOITASUNA ETA DOAKOA IZATEA ARRAKASTAREN GAKO IZAN DAITEZKEELA ERAKUTSI ZIEN GOIO ARANAK EUROPARREI

LEIRE KORTABARRIA

GOIENKARIA ezohiko prentsa eredu da Europan. Vienako kongresuko parte hartzaile gehienak aldizkari handiak ziren; gutxienez, erregio mailakoak. Europan, lekuko eta doako prentsa modu desberdinean ikusten dute. Goio Aranak beste ikuspuntu bat proposatu zien.

GOIENKARIAk lekuko prentsa ulertzeko modu berritzailea proposatzen du Europan nagusi diren ereduaren aldean. Goio Arana GOIENKARIAko arte zuzendaria dioen bezala, "GOIENKARIAk erakutsi du itxura ona, kalitatezko informazioa, eta doakotasunaren arteko oreka lor daitekeela". Izan ere, Europako herri gehienetan —eta kongresuko beste hitzaldi batzuetan hala adierazi zuten—, doakotasuna begi txarrez ikusten dute, ez doa eta kalitatearekin lotua. Europa osotik etorritako 200 bat diseinatzaile eta aldizkari editoreri azaldu zizkien Goio Aranak oreka horren giltzak, GOIENKARIAren ereduaren berri emanaz.

Hitzaldi laburra, zuzena eta garbia egin zuen Aranak, eta publikoak arretaz entzun zion. Antolatzaileek gura bezala, kongresuak "aldizkariok ideiak trukatu ditzaten" balio behar badu, ziur batek baino gehiagok ondo jasoko zituela GOIENKARIAtik zetozenak.

Goio Arana, hitzaldia egiten. Society for News Design elkarteak artikulua aterako du horren gainean *Design* aldizkarian.

LEIRE KORTABARRIA

DOAKOTASUNA, INDARRA

Martitzen goizean egokitu zitzaion Goio Aranari hitzaldia egitea, sari banaketa ekitaldiaren biharamunean, alegia. Ordura arte, kongresuko parte hartzaileek zortzi bat hitzaldi entzuteko aukera izan zuten. Gehienek

erakusten zuten prentsa ereduak ez zuten inongo zerikusirik GOIENKARIArenarekin: tokian tokiko zenbait aldizkaritako editoreek berba egin zuten, baina guztiak ordaindutakoak ziren, eta hedabide talde handi edo ertainenak, gainera. Goio Aranak

esan zuen bezala, "GOIENKARIA 13 laguneko taldeak egiten du; baliabide falta ilusioarekin ordezkatzen dugu".

DISEINU ETA EDUKI BEREZIAK

Debagoieneko irakurleari ez zaio harrigarri egiten GOIENKA-

RIAren eredu, baina Goio Aranak herri aldizkarien fenomenoaren berri eman behar izan zuten Vienako kongresuan elkar-tutakoei. Debagoieneko egoera sozio-ekonomikoa deskribatu zuen lehenengo, eta azaldu zuen lehenengo herri aldizkariaren sorrera, horren argitara. Segidan, GOIENKARIAren diseinua aurkeztu zuen, atalez atal eta edizioz edizio. *Asteleheneko Goienkaria* ere aipatu zuen.

Kongresuan hainbat aldizkari erakutsi dira; eta hangoekin alderatuta, GOIENKARIAren berezitasun bat da bere azala, bai orokorra, bai eta edizioetakoa eta Goienka2arena ere. "Kolare indartsu, erakargarri eta ausartak aukeratu genituen; gure tipografia ere berezia da".

Debagoieneko herrion egoerak GOIENKARIAren edukiak zelan baldintzatzen zituen ere jakin arazi zuten kongresuko entzuleei: "Eduki txiki asko biltzen ditugu gure orriotan, gehienetan albiste txikiak direlako. Baina tratamendu bera ematen diegu 900 zein 25.000 biztanleko herrietako aldizkariari". Aranak azaldu zuen herritarren implikazioa ezinbestekoa dela GOIENKARIAren arrakasta ulertzeko.

SND diseinatzaile elkarte garrantzitsuko Javier Erreak zoriondu egin zuen Arana hitzaldiagatik, eta aurreratu zuen *Design* euren aldizkarian artikulua zabal bat eskainiko diotela.



NORBERT KÜPPER

Antolatzailea
'Office for Newspaper Design'

JOHANN OBERAUER

Editorea
'Österreichischer Journalist'

PILAR OSTALÉ

Arte zuzendaria
'Heraldo de Aragón'

CHRISTOPH GROTE

Editoreburua
'Leine-Zeitung' lekuko aldizkaria

ANNETTE MILZ

Editoreburua
'Medium magazin'

Zer iruditzen zaizu GOIENKARIA?

GOIENKARIAren lanak inpresio handia egin dio lehiaketa honi, eta ez aurten bakarrik. Tokiko prentsa lan oso gertutik jarraitzen dugu, badakigulako zailtasun handiagoak dituzuela. Horregatik, hain zuzen, zuen lan bikainak oraindik meritu handiagoa du. Zuen azala eredu-garria da edozein egunkarirendako: argia eta erakargarria da.

Zein da prentsa-erakundearen erroka handiena?

Europar gizartea aldatzen ari da, eta horrek zaildu egingo du prentsa idatziaren etorkizuna. Europa zahartzen ari da; edadetuek gero eta diru gutxiago dute, eta baita familiek ere. Dirua zelan inbertitu erabakitzerakoan, aldizkari baten harpide egiteak merezi ote duenaren zalantza izango dute. Horri aurre egiteko prest egon behar dugu.

Zenbaterainoko garrantzia du diseinuak?

Zaragozan hainbat hedabide berri ateratu zituzten, eta lehia horri aurre egiteko, diseinua aldatu dugu. Diseinu on bati esker, aldizkari batek lehiakortasunean asko irabaz dezake. Gure kasuan, egunkaria berri egin dugu, eta irakurle eta publikitate bezeroendako erakargarriagoa da. Diseinua berritzearekin, egunkari osoa indartu da.

Zein da tokiko prentsa-erakundearen indarra?

Lekuko informazioa lekuko aldizkariok ematen dugu ondoen, eta horixe da tokian tokiko aldizkariok beti gogoan izan behar duguna. Gure irakurleak denbora gutxiago ematen du prentsa irakurtzen, baina kalitatea exijitzen duenez, itxura erakargarria eta gertuko istorio onak eskaintzen ditugu. Azal on bat ere oso inportantea da tokiko prentsan.

Zer ikas dezakete nazio aldizkariet txikiotatik?

Aldizkari onak eta ardurak berdinak dira, hedapenari begiratu barik. Printzipioa, guztientzako, da zelan erakarki eta eutsi irakurlearen arreta. Lekuko prentsak esfortzu handia egiten du horretarako, eta medio gutxiagorekin; baina gertutasuna oso erakargarria da irakurlearentzako, eta hori egiten tokiko prentsa ereduak handiondako.

CORRIERE DELLA SERA

CORRIERE DELLA SERA
Milan, Italia

**Kontzeptu konplexuak
modu errazean aurkeztu**

Paolo Ermini *Corriere della Sera* saritutako egunkariko ardura-dunak euren hiru helburuak aurkeztu zituen: hots, “istorio bat kontatzea, ahalik eta ondoen eta modu garbienean kontatzea eta gure irakurleen kontzientzia kritikoa izatea”. *Corriere della Sera* erreferentzia egunkari bihurtu da Italian, eta hori, informazioa aurkezterako munduaren bere ikuspegiari uko egin barik. Ikuspegiari eustea eta arrakasta handia lortzea uztartu ditu “irakurleari lagundu nahi diogulako bere iritzi propioa sortzen, nahiz eta gurearen aurkakoa izan”, esan zuen Erminik. Horretarako aukeratutako bidea diseinua izan da.



Izan ere, egunkari horrek bere aurkezpena berritu du, eta gaur egun, diseinuaren bidez, “argitasuna eta guztiok ulertzeko moduko lengoaia” bilatzen dute. Informazioa modu “ahalik eta ulerterraz eta garbienean” ematea da irakurlearekin duten konpromisoa.

THE INDEPENDENT

THE INDEPENDENT
Londres, Britainia Handia

**Formatu aldaketa,
arrakastaren gakoa**

GOIENKARIAk orain anaia gaztea du, eta ez da horretan bakarra. Londresko *The Independent* egunkariak erakutsi du, batzuetan, formatu berri batek egin dezakeela alde arrakastaren eta porrotaren artean. *The Independent* tamaina handian argitaratzen zen, baina iazko urrian, tabloide neurrian (hemen tamaina ohikoa) plazaratu zuen egunkari berbera. Horren eraginez, salmentak %15ean igo ziren, eta Britainia Handiko egunkari handiendako eredu bihurtu zen.

Horrek uzten digun ikasgaia: “Irakurlearen beharrei entzun behar diegu, eta euren beharrak aseko dituen argitalpen mota eskaini”, esan zuen Louis Jebb arduradunak. Bigarren ikasgai bat: aldizkariaren itxurak uste baino garrantzi handiagoa du irakurleak aldizkariaren aukeraketa egiteko orduan. *The Independent*-eko irakurleek aurkezpen zuzen eta sinplea zuen ereduak hobetsi zuten.

RHEINISCHE POST

HAINBAT PRENTSA EDITORE
Alemania, Austria eta Suitza

**Kalitatezko Europako
prentsaren erronkak**

Zerk egiten du egunkari bat kalitatezko? Oraingo irakurleak eta lehengoak modu berean ulertzen dute kalitatea? Horiek eta antzeko goguetak plazaratu zituzten Alemania, Austria eta Suitzako lau egunkariaren editoreek. Europako prentsa merkatu lehiakorrenak krisialditik irteteko klabeak eztabaidatu zituen, baina oraindik oso iritzi desberdinak dituzte.

Hainbat puntutan, ordea, ados agertu ziren lau editoreak. “Kalitatea ez da derrigorrez guztia konpetentziak baino hobeto egitea, aldizkari bakoitzak bere espezialitatean onena izatea bai-zik”, zen euren iritzia. Bestetik, bat etorri ziren esatean kalitatezko medio guztiak Internet txertatu behar dutela. Hirugarrenik, etorkizuneko edukiek erakargarri izan nahi badute, informazioa eta entretenimendua uztartu behar dutela esan zuten, “hori bai, irakurlearen exijentzia intelektuala zainduta, betiere”.



Hamburger Abendblatt

HAMBURGER ABENDBLATT
Hamburgo, Alemania

**Zientzia eta jakinduria
gaietarako irudiak**

Europako beste argitalpen handi askok egin duten bezala, *Hamburger Abendblatt*-ek diseinu aldaketara jo zuen prentsa idatziaren krisialdiari aurre egiteko. Kongresuan, egunkari horretako barne sail baten kasua azaldu zuten, GOIENKARIAren *Goienka2a* atalaren kutsua zuen bate-na, gainera. Kasu honetan, zientziari eta jakintzari eskainitako tartea da, bere azal propioa du eta helburua da informazio hori ahalik eta modurik entretenigarri eta ari-nenean adieraztea. Horretarako, *Goienka2a*-ren antzera, egunkari horrek irudi handi, koloretsu eta erakargarriak erabiltzen ditu. “Askotan, ideia konplexuak adierazteko modu bakarra irudi on bat da”, esan zuen Berndt Röttger hizlariak.

Röttger-ek gaineratu zuen marrazkiak argazkiak bezain eraginkorrak izan daitezkeela, eta oso egokiak gai desatseginen kasuan: adibidez, ebakuntzen inguruko erreportaje baterako.

“Guztiok ulertzeko moduko lengoaia erabili behar du prentsak”

“Irakurlearen beharrak aseko dituen argitalpenak eskaini behar ditugu”

“Informazioa eta entretenimendua uztartu egingo dira etorkizunean”

“Askotan, ideia konplexuak adierazteko modu bakarra irudia da”

Iragan inperialaz harro dagoen hiria

Inoiz 80 milioi biztanle izan zituen erresuma bateko hiriburu izatetik, zortzi milioi biztanleko herrialde txiki baten erdigune izatera pasa den hiri batera iristen zarenean, badakizu ez dela nolanhiko lekua. Vienaz ari gara, Austriako hiriburua. Han egon ginen Goienako hiru kide, eta, denbora laburra eman genuen arren, lehen unetik sumatu genuen Viena-ren nortasun indartsua.


Habsburgotar familia, Austria-Hungariako erresuma-ekin, Europa erdiko jabe izan zeneko garaia zor dio Vienak bere itxura eta izaera. Vienak 220 museotik gora ditu, baina ez dago inora sartu beharrik; izan ere, Vienako kale eta hirigune zabal, argitsu eta kosmopolitak dira museo

liluragarriena. Ze, hortxe daude Inperioaren garaiko hamaika jauregi, antzinako eraikin, eliza... bisitariari agur egiten; baita Mozart-ek eta Strauss-ek euren musikarekin bedekinatutako eraikinak ere; edo Freud psikoanalista sarri bisitatzen zuen kafetegia. Arrazoi osoz esaten dute, bai, adituek Vienako toki ikusgarri guztiak bisitatzeko lau aste behar direla. Gu bezala, han lau

Viena ezagutzeko lau aste behar diren arren, berehala antzematen da bere nortasun indartsua

egun besterik pasa dezaketenek ikusiko dute zelan Vienako iragana irtetzen zaion bidera. Gaur egungo Viena, bestalde, oso ondo antolatutako hiria da: Debagoienak inoiz hango bezalako barne garraio sarea badu (tranbia ere badute), ez da lorpen makala izango.

Austriarrak isilik dira, baina, euren erara, badakite bisitariari harrera ona egiten. Adibidez, kongresuak Vienako afari tipiko batera gonbidatu gintuen, giro beroan. Kutsu euskalduna ere izan zuen gure egonaldiak, Jorge Uliarte Vienako Sinfonietta orkestrako zuzendaria euskal sustraidun argentinarrak, han geundela jakinda, guregana etorri eta, sari banaketa ekitaldian, agertokitik agur egin zigun-eta.



Goio Arana, Leire Kortabarria eta Inazio Arregi, Schönbrunn jauregiaren aurrean.

Apririlak 2-7

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ARRASATE

► **Odol emaleen elkarteak** kontzientziario kanpaina antolatuta du. Gaur, egubakoitza, Fagor Garagartza lantegira joango dira 09:00etan; martitzenean, hilak 6, Fagor Arrasaten egongo dira, ordu berean.
► **Berto bazkaria** egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 14:00etan. Amets Arzallus eta Sustrai Colina egongo dira.
► **Saeta txapelketa** egongo da bihar, zapatua, Al-Andalus elkartearen. Aurretik, bideo emanaldia egongo da, 22:30ean.
► **Emakumeen aurkako erasorik ez!** leloarekin kale bilkura deitu du Emakumeen Kontseiluak astelehenerako, apirilak 5, Herriko Plazan, 19:30ean.

BERGARA

► **El color del universo** hitzaldia egingo du Javier Armentia astronomoak gaur, egubakoitza, Migel Altuna institutuan, 20:00etan.
► **Berto jaialdia** egongo da bihar, zapatua, frontoian, 22:30ean. Sustrai Colina, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Jose Luis Gorrotxategi, Angel Mari Peñagarikano eta Mikel Mendizabal bertsoari hartuko dute parte.
► **Autodeterminazioa orain** leloarekin kale agerraldia egongo da bihar Donostian, eta Bergarako ekintzaileek autobusak antolatu dituzte. Izen ematea, ohiko lekuetan.
► **Hondarribia, Usurbil eta Miramonera irteera** antolatu du San Joxepe erretiratuen elkarteak. Bisita gidatua izango da, eta bazkaria ere egitarauaren barne dago. Izena emateko, jo elkartera apirilaren 18a baino lehenago.

DEBAGOIENA

► **Egonaldiak familia euskaldunetan** egitasmoa abian dago. Familiek eta ikasleek ere badute aukera izena emateko. Familiek aukera dute izena emateko apirilaren 18ra arte. Argibide gehiagorako, deitu 943 47 44 47 telefono zenbakira (Olga).
► **Arantzazura erromesaldia** deitzen du Donostiako Elizbarrutiak biharko, zapatua. Juan Mari Uriarte

gotzainak parte hartuko du. Oñatiko Soraluze hoteletik abiatuko da taldea 09:30ean, eta espero dute 11:45ean Arantzazun egotea dagoeneko.

ESKORIATZA

► **Gijon eta Oviedora irteera** antolatu du Amuska emakume elkarteak maiatzaren 22 eta 23rako. Izena emateko egunak apirilaren 19a eta 20a izango dira, kultura etxean. Leku mugatuak daude.

OÑATI

► **Markel Irizar txirrindulariaren** lagunarteko bazkide egiteko aukera duzue astean bi egunetan, martitzen eta eguenean, alegia, Aloña Mendi tabernan, 19:00etatik 20:30era.
► **Afrikar emakumeen topaketak** egingo dituzte Lege Soziologiako Institutuan astelehenean (10:00-14:00 eta 15:30-19:00) eta martitzenean (09:00-14:00).

OSPAKIZUNAK

ARRASATE

► **Giokelako harakinek** jaialdia antolatu dute biharko, zapatua, Herriko Plazan, arratsalde partean. Goikobalu abesbatzak esku hartuko du, eta baita Portaloi Elkarteak, antzinako euskal kantak zabaldu nahi dituen taldeak.

OÑATI

► **Txantxiku Ikastolaren Eguneko** egitarauaren barne, honako ekintzak izango dira: gaur, egubakoitza, jolasparkea Santa Ana ikastetxeko jolaslekuan, 14:30-18:00, ikasleendako, eta jaialdia segidan: 14:30ean, ikasleendako, eta 18:00etan, gurasoendako. Bihar, zapatua, umeendako jolasparkea ipiniko dute Santa Ana ikastetxeko jolaslekuan, 11:00etatik 14:00etara. Gela ireki jardunaldia egongo da leku berean, 11:00etatik 13:00etara. 12:00etan, Lehen Hezkuntzako 6. mailakoek antzezlanak eskainiko dituzte. Eta Bigarren Hezkuntzakoek erakusketa ipiniko dute Ikastolako aretoan, 11:00etatik 14:00etara.

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► **Erregearen traje berria** ipuinaren irakurketa egingo du Maite Toledok gaur, egubakoitza, liburutegian, 18:00etan. Eskolako umeen marrazkiak eta kontaketa ikusteko aukera ere egongo da.

ARRASATE

► **La ratonera** misteriozko antzezlan eskainiko du Txalo Produzioak taldeak etzi, domeka, Amaia Udál Antzokian, 19:30ean. Sarrerak salgai daude gaur, hango txarteldegian, 18:00etatik 20:00etara.
► **Ya te digo** antzezlan eskainiko du Las Torpedo Level taldeak gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko lamai kafetegian, 00:00etan. Taldeko partaideetako bat arrasatearra da. Sarrera doan izango da.

OÑATI

► **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoek emanaldia egingo dute etzi, domeka, kiroldegian, 16:30ean eta

18:30ean, Txantxiku Ikastolaren eskutik. Sarrerak salgai daude ikastolako idazkaritzan.

LEHIAKETAK

ANTZUOLA

► **Kukumarro lehiaketa** deitu du Udalak, bi kategoriatan: 12 urtera artekoak, 12tik gorakoak, eta erretiratuak. Parte hartzeko azken eguna maiatzaren 12a da. Lanen erakusketa ere egongo da.

ARRASATE

► **XX. doke txapelketa** jokatu dute etzi, domeka. SUDC elkarteak antolatu du eta Monterongo parkean izango da. 7-15 urte bitartekoei dago zuzenduta eta 11:00etan hasiko da. Bestalde, apirilaren 9an, elkartearen arteko txapelketa jokatu dute, leku berean, 10:00etan, hau XXIV. aldiz.

BERGARA

► **VII. Abdon Juaristi margo lehiaketa** deitu du herriko zezen zale

elkarteak. Aurtengo Mendekoste jaietan, zezen jaia iragarriko duen kartela aukeratu dute. Argibide gehiago, www.bergara.es gunean.

IKASTAROAK

ARETXABAETA

► **Meditazio taldea** jarri du abian Sadhana yoga eta psikoterapia elkarteak, eta parte hartzea zabalik dago. Astelehenean da, 11:00etatik 12:00etara. Hastapen eta ertain mailak landuko dituzte.
► **Zinema eta mitologia tailerrean**, *Encuentros en la tercera fase* filmaren inguruko jardunaldia egingo dute bihar, zapatua, Sadhana elkartearen. 16:30ean izango da, eta 10 euro da. Argibideetarako, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

ARRASATE

► **Hastapen mailako taila ikastaroa** deitu du Arte Arrasateko Tailaginen Elkarteak apirilaren 26tik aurrera. Izena emateko, deitu honako lagunei: Jose



► OSPAKIZUNAK

ERRAMU ZAPATUKO FERIA EGONGO DA BIHAR BERGARAN

Abeltzainen azoka eta jaieguna izango da bihar, zapatua, Bergaran; izan ere, Erramu Zapatuko feria egingo dute herriko hainbat gunetan. Azoka da ekitaldi garrantzitsua, baina beste hainbat ekintza ere egongo dira. Azoka 09:30ean zabalduko dute. Abelburuen erakusketa, Eusko Labeleko produktuen salmenta, artisauen lanak, makineria... egongo dira bertan. Bestalde, txakur-leren erakusketa ere egongo da. Eguerdiko inguruan, txorimaloak, sari banaketa, bigantzen enkantea, berto emanaldiak... egingo dituzte 14:00ak ingurura bitartean. Arratsalde partean, San Martin Agirre plazan, umeendako jokoak eta jolasak egongo dira. Eta 22:15ak inguruan, berto jaialdia pilotalekuan.

Non: Bergaran, hainbat gunetan. **Noiz:** bihar, zapatua, apirilak 2. **Ordua:** 09:30ean hasiko da azoka.

Txinatar jatetxea
**DRAGON
ORIENTAL**



**Etxera eramaten
dizugu janaria**

• Ostiral eta zapatu gauetan izan ezik
• Gutxieneko eskaria 12 euro
• 1,8 euro etxera eramateagatik

• 30 euro baino gehiagoko eskarrietan, garagardo txinatarrak opari
• 40 euro baino gehiagoko eskarrietan, botila bi txinatar likore edo garagardo txinatar bi opari

• 20 minutuan etxean
• Arrasaten bakarrik

943 79 85 33

Araba etorbidea 3 ARRASATE



EVARISTOREN TALDE BERRIAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU BIHAR

Gatillazo, Evaristoren talde berria, Bergarako Jam aretoan izango da bihar, zapatua. Euren esanetan, betiko jeinu txarrarekin eta borrokatzeko gogo berberarekin jarraitzen dute. Evaristok ahotsa ipintzen du; Tripi batera jotzaileak, Txiki eta Osoron gitarra jotzaileek eta Xabi baxu jotzaileak osatzen dute taldea. Emanaldia 22:00etan hasiko da. Keltoi! eta Banda Muzipala taldeek ere egingo dute emanaldia.

Mari (943 79 77 57) edo Imanol (943 03 78 28).

► **Bioenergetika taldea** antolatu du Arrasate Yoga elkarteak astelehen eta eguaztenean, 18:30etik 19:30era. Argibideetarako, deitu 616 96 57 95 zenbakira.

DEBAGOIENA

► **Merkatariendako ikastaroak** antolatu dituzte ibarreko merkatarien elkarteek (Aretxarte, Bedelkar, Ibai-Arte eta Txanda). Erakusleho apainteta, paketeria, lan arriskuen prebentzioa, pisuen erabilera, negoziazio teknikak... izango dira ikastaroen gaiak, beste batzuen artean. Maiatzean hasiko dira. Argibide gehiagorako, deitu 943 79 30 90 telefono zenbakira.

ESKORIATZA

► **Helduendako patinaje ikastaroa** antolatu du udalak maiatzeko domeketarako, 10:30etik 12:30era bitartean. Izena emateko, jo kultura etxera apirilaren 30a baino lehenago. Kiroldegiko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, 13. Argibideetarako, deitu 943 71 46 88 telefonora.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Martxe Arana margolariak** erakusketa ipiniko du gaur, egubakoitz, Arregi galerian. Jaiotzez aretxabale-tarra da, baina gaur egun Donostian bizi da. Olioak margotu ditu, paisaiak batez ere, eta hilabete osoan egongo da ikusgai.

OÑATI

► **Haur poesia aretoa** zabalik dago apirilaren 5era arte, astelehena. Helburua da umeei, bereziki, euskal poesia hurbiltzea, jolas moduan. Horretarako, baso moduan antolatu dute erakusketa. Kultura etxeko erakusketa aretoan dago.

MUSIKA

BERGARA

► **Gatillazo, Keltoi! eta Banda Muzipala** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Sarrerak 10 eurotan salduko dituzte; 8 euro kostatuko dira alde aurretiko salmentan.

► **Udal Musika Bandaren** emanaldia egongo da etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean. Kalejira eta kontzertua egingo dituzte.

ESKORIATZA

► **Sharon Stoner eta Neubat** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

Zinema

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

Film labor emanaldia
Egubakoitz, apirilak 2: 20:30.

Lost in translation

Zapatua: 19:00, 22:00.
Astlehena: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ NOVEDADES

Cuando menos te lo esperas

Egubakoitz: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

Cuando menos te lo esperas

Egubakoitz: 22:30.
Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.
Astlehena: 19:30.

Prop eta Berta

Zapatua eta domeka: 17:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ UNZAGA

Peter Pan: la gran aventura

Egubakoitz: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena eta martitzena:
19:30, 22:15.

■ RIALTO

Cold mountain

Egubakoitz: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena eta martitzena:
19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ GURIDI

Océanos de fuego (Hidalgo)

Egunero: 20:00, 22:30.

Lost in translation

Egunero: 19:45, 22:30.

Hermano oso

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

La pasión de Cristo
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

El abrazo partido

Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Club desmadre

Egunero: 17:30.

Dúplex

Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Big fish

Egunero: 22:30.

Peter Pan, la gran aventura

Egunero: 17:30, 20:00.

Los chicos de la lluvia

Egunero: 17:00.

■ MIKELDI ZINEMAK

Dúplex

16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Mystic river

17:15, 20:00, 22:30.

Alex & Emma

16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Peter Pan: la gran aventura

17:30, 20:15, 22:45.

21 gramos

20:00, 22:30.

Océanos de fuego (Hidalgo)

17:20, 19:50, 22:35.

Scooby doo 2

16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Y entonces llegó ella

17:15.

La mala educación

17:15, 20:00, 22:30.

Hermano oso

16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Martitzena eta eguna,
ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

Glup (euskaraz)

Egunero: 17:30.

La mala educación

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Nicotina

Egunero: 20:00, 22:30.

Lejano (Uzak)

Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Cleopatra

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Cuando menos te lo esperas

Egunero: 20:00, 22:30.

El principio de Arquímedes

Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Vidas ajenas

Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

La joven de la perla

Egunero: 17:30.

■ ABACO-LAKUA ZINEMAK

Hermano oso

16:30, 18:30, 20:30, 22:30,

00:30.

Peter Pan: la gran aventura

17:00, 19:30, 22:15, 00:45.

La pasión de Cristo

17:00, 20:00, 22:30, 01:00.

Kill Bill

16:45, 19:45, 22:15, 00:45.

Scooby doo 2

16:10, 18:20, 20:20, 22:00,

00:30.

Océanos de fuego (Hidalgo)

16:25, 19:15, 22:10, 01:00.

Torque

16:10, 18:15, 20:15, 22:20,

00:30.

Km. 666

16:15, 18:10, 20:10, 22:10,

00:30.

Cold mountain

16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Gauerdiko saioak,
egubakoitzean eta zapatuan.

Eguaztrena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Torque

18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Gothika

12:15, 16:15, 18:20, 20:20.

Cuando menos te lo esperas

12:15, 16:05.

Kill Bill

12:15, 16:10, 18:15, 20:35,

22:45, 01:00.

Lost in translation

21:00, 22:50, 00:40.

Océanos de fuego (Hidalgo)

12:15, 16:45, 19:15, 22:00,

00:45.

Cold mountain

12:15, 15:30, 16:15.

Hermano oso

12:15, 16:30, 18:30, 20:30,

22:30, 00:30.

Peter Pan: la gran aventura

12:15, 15:45, 18:00, 20:15,

22:30, 00:45.

Y entonces llegó ella

12:15, 16:35, 18:35, 20:35,

22:35, 00:35.

Club desmadre

18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Big fish

20:00, 22:15, 00:40.

El Cid, la leyenda

12:15, 16:40.

Doce en casa

12:15, 16:05, 18:05.

Los Reyes Magos

12:15, 16:20.

Vidas ajenas

12:15, 16:15, 18:15, 20:15,

22:15, 00:15.

Km. 666

18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Cleopatra

22:00, 00:00.

La pasión de Cristo

12:15, 17:30, 20:00, 22:30,

01:00.

Scooby doo 2

12:15, 16:00, 18:00, 20:00,

22:00, 00:00.

Gauerdiko saioak, bakarrik
egubakoitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, bakarrik
domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna.

■ ÁBACO BOULEVARD

La mala educación

12:10, 17:15, 19:30, 22:00,

00:30.

Peter Pan: la gran aventura

12:15, 17:00, 19:20, 22:00,

00:30.

Gothika

12:10, 17:30, 20:00, 22:30,

00:45.

Hermano oso

12:00, 16:00, 18:00, 20:15,

22:15, 00:30.

Kill Bill

20:20, 22:45, 01:00.

La pasión de Cristo

12:00, 17:00, 19:45, 22:20,

01:00.

Y entonces llegó ella

12:10, 16:00, 18:00, 20:15,

22:30, 00:30.

Club desmadre

12:20, 16:00, 18:10, 20:20,

22:30, 00:45.

Dúplex

12:15, 16:15, 18:10, 20:10,

22:10, 00:30.

Honey

12:10, 16:15, 18:15.

Vidas ajenas

12:20, 16:00, 18:10, 20:10,

22:10, 00:30.

Scooby doo 2

12:15, 16:30, 18:30, 20:30,

22:30, 00:45.

Océanos de fuego (Hidalgo)

12:00, 16:30, 19:20, 22:15,

01:00

Gauerdiko saioak, bakarrik
egubakoitzean

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arexabaleta. Etxebizitza salgai. 80m². Hiru logela, egongela. Gas naturaleko berogailua. Bizitzera sartzeko gertu. Deitu 17:00ak eta 20:00ak artean. 617 58 45 22.

Arrasate. Apartamentua salgai Maalako Errabalan. 626 53 56 30.

